



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

EHUN LIBURU MENDE BERRIRAKO

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Bravo García, Irati.

ZUZENDARIA: Lasarte Leonet, Maria Gema.

2017-2018 ikasturtea

Franz Kafka: "Liburu bat gure barnean dagoen itsaso izoztuta apurtzen duen aizkora izan behar da".

Laburpena

Lan honen bidez, bai Haur liburutegietan baita Haur Literaturan ere gai tabuak duten ikusgarritasunean sakonduko da. Egun, tabutzat hartzen ditugun gaiak asko dira eta umeekin hauetaz hitz egiteko joera saihesten dugu. Horren berri emateko eta egoera aldatu beharraren kontzientzia hartzeko garatutako lana dugu hau. Horretarako, marko teorikoaren bidez lanean zehar ezinbestekoak izango diren kontzeptuetan murgiltzea ahalbidetu da: Haur Literatura, irakurketa, eskola liburutegiak eta gai tabuak landuaz. Ondoren, gai tabuen inguruan sakondu da, hau lanaren helburu nagusienetarikoa izanik. Hori lortzeko, bi ikerketa nagusi dira: Alde batetik, gai tabuen inguruan hainbat adituei egindako elkarrizketak eta, bestetik, Gasteizko liburutegi batean gai tabu zehatz batzuk agertzen diren liburuen behaketa. Lanarekin amaitzeko, egindako bi ikerketen emaitzak eta ondorioak zehaztu dira.

Hitz gakoak: Haur Literatura, liburutegiak, gai tabuak, ipuinak, ikusgarritasuna.

Resumen

A través de este trabajo se pretende profundizar en la visibilidad de los temas tabús tanto en las bibliotecas infantiles como en la literatura infantil. Hoy en día, son muchos los temas que consideramos tabús y, normalmente, tendemos a evitar hablarlos con los niños. Debido a esto se presenta este trabajo, con la finalidad de dar a conocer esta realidad y ser consciente del cambio que tanto la situación como cada uno de nosotros ha de dar. Para ello, será imprescindible la herramienta del marco teórico, el que nos dará la oportunidad de sumergirnos entre los conceptos imprescindibles de este trabajo, así como: La literatura infantil, la lectura, las bibliotecas escolares o los temas tabús. A continuación, se profundizará en los temas tabús, uno de los objetivos principales de este trabajo. Para conseguir dicho objetivo se llevarán a cabo dos investigaciones: Por una parte, las entrevistas sobre los temas tabús hechas a diferentes expertos y, por otra parte, la observación de unos temas tabús concretos en la literatura infantil, llevada a cabo en una biblioteca infantil de Vitoria-Gasteiz. Para finalizar con el trabajo, se presentarán las soluciones de dichas investigaciones, así como las conclusiones generales del trabajo.



Palabras clave: Literatura infantil, bibliotecas, temas tabúes, cuentos, visibilidad.

Abstract

By this essay, we will go in depth through taboo matters have visibility in children`s libraries as well as in children`s literature. Nowadays, there are many matters that we consider taboo and, normally, we tend to avoid talking with children. Due to this, presented this essay, in order to make know this reality and to be conscious of the change that both the situation and each of us have to do. For this, the tool of theoretical framework will be essential, which will give us the opportunity to immerse ourselves in the essential concepts of this essay, as well as: Children`s´ literature, the reading, school libraries or taboo matters. Then, we will delve into taboo matters, one of the main objective of this work. To achieve this objective, two investigations will be carried out: On the one hand, interviews made to different experts around taboo matters and on the other hand, the observation of specific taboo matters in children`s´ literature carried out in a children library in Vitoria-Gasteiz. To finalize the essay, will be presented the solutions of these investigations, as well as the general conclusions of the essay.

Key words: Children`s´ literature, libraries, taboo matters, tales, visibility.



AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1. Haur literaturaren inguruan.....	5
2.1.1. Haur literaturaren definizioa	5
2.1.2. Haur literatura motak	6
2.1.3. Haur literaturaren ezaugarriak eta funtzioak.....	7
2.2. Irakurketaren inguruan	8
2.2.1. Irakurketa definizioa	8
2.2.2. Irakurketaren helburuak	9
2.2.3. Irakurketa prozesatzeko motak	10
2.2.4. Irakurtzearen faseak	11
2.2.5. Irakaslearen egitekoa irakurketa prozesuan.....	11
2.3. Eskola liburutegiak	12
2.3.1. Eskola liburutegiak zer dira?	12
2.3.2. Funtzioak	14
2.3.3. Ezaugarriak.....	14
2.3.4. Agente ezberdinen papera.....	15
2.3.5. Liburuak aukeratzeko irizpideak.....	16
2.3.6. Gelako liburutegiak	17
2.4. Gai tabuak haur literaturan	18
3. JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK	19
4. METODOLOGIA	20
4.1. Tresnak.....	21
4.2. Partaideak	22
5. EMAITZAK.....	23
5.1. Elkarrizketen emaitzak.....	23
5.2. Behaketaren emaitzak	27
5.3. Inbentarioaren emaitzak.....	29
6. ONDORIOAK.....	36
7. BIBLIOGRAFIA.....	39
8. ERANSKINAK.....	41

1. SARRERA

Azken urte hauetan haur literatura agente hezigarritzat bezala hartzen hasia da, umeengan eragiten dituen ondorio positiboak direla eta: umeei mundua ulertzera laguntzen die; besteekin sozializatzeko tresna ezin hobea da; haien nortasuna eraikitzeko aukera ahalbidetzen du, eta hizkuntza garatzeko aukera ere bermatzen du. Hori dela eta, esan daiteke, haur literatura edozein gai, balore, kontzeptu edota jarrera lantzeko indar handiko erraminta bihurtzen ari dela.

Ildo beretik jarraituz eta umeengan dituen eragin positiboak kontuan hartuz, gai tabuak eta gai berritzaileak lantzeko erraminta garrantzitsua ere dela ukazina da, izan ere, literaturaren bidez haurrengan irakurzaletasuna pizteko jakinmina eragiten duten gaiak landu behar dira. Gaur egungo egoera aintzat hartu behar dugu; izan ere, gero eta gehiago dira tabutzat hartzen ditugun gaiak, bai haur literaturan baita egunerokotasunean ere umeekin lantzea saihesten ditugunak. Aditu asko izan dira gai hauen ikusgarritasuna haur literaturan defendatu dutenak, beste arrazoi batzuen artean, umeek ere errealitatea den bezalakoa ulertzeko eta esperientzia ez hain positiboekin txikitatik harremanak ezartzen hasteko.

Arestian aipatutako guztia landu ahal izateko, marko teorikoa lau kontzeptu garrantzitsuetan oinarritu da: Haur literatura, irakurketa, eskola liburutegia eta gai tabuak. Ondoren, lan honen helburu nagusienetarikoa haur literaturan gai tabuen ikusgarritasuna behatzea izanik, metodologia atala alderdi honen inguruan zentratu da. Atal honetan bi ikerketen berri emango da: Alde batetik, literatura adituei batzuei egindako elkarrizketak, eta beste alde batetik, haur liburutegi batean gai tabuen inguruan egindako behaketa. Honi jarraituz, ateratako emaitzak aurkeztu dira eta, ondoren, lan osoari dagozkien ondorio nagusiak. Era berean, azken atal honetan, hobetzeko proposamenak ere agerian geratu dira. Lanari amaiera emateko, eranskinak agertuko dira, non ikerketak aurrera eramateko erabilitako txantiloak, adituen elkarrizketak eta behaketa fitxa agertuko diren.

2. MARKO TEORIKOA

Lan hau aurrera eramateko ezinbestekoa da kontzeptu batzuk argi eta zabal azaltzea eta haien inguruan sakontze lan bat egitea. Beraz, kontzeptu nagusiak definitzeko, hainbat adituen esanetan oinarritzea ezinbestekoa da. Hasteko, haur literatura zer den eta duen garrantzia azalduko da. Ondoren, irakurketaren inguruko definizioa emango da, eskolako liburutegiek duten garrantzia eta eginbeharrak azpimarratzen diren neurrian. Azkenik, gaur egun gai tabuek haur literaturan duten eragina eta garrantziari buruz hitz egingo da.

2.1. HAUR LITERATURAREN INGURUAN

2.1.1. Haur literaturaren definizioa

Marko teorikoarekin hastearren, ezinbestekoa da haur literaturaren inguruan hitz egitea, izan ere, lan honetan zehar agertuko diren definizio eta kontzeptu guztiek haur literaturarekin eta genero honek biltzen duen publikoarekin harremana izango dute. Gaur egun, haur literatura zer den definitzea zaila da (Etxaniz, 1996; Moreno, 2009), izan ere, pertsonaren arabera literatura bera ezberdina izan daiteke. Hala ere, badira autore asko kontzeptu hau definitzen saiatu direnak.

Etxanizek (1996) adierazten duen bezala, haur literatura haurrentzat idatzita dagoen eta haurrek gozatzeko eta atsegin sentiarazteko egina dagoen testu multzoa da. Cervera (1989) honekin bat dator, eta gehitzen du, haur literatura terminoak bere barnean jaso behar duela artistikoa eta sortzailea hitzek duten produkzio oro. Halaber, aurreko ezaugarriak betetzen duen eta soilik helburu didaktikora mugatzen ez den guztia haur literaturaren barnean dagoela adierazten du, hala nola, asmakizunak, telebista, zinema edota abestiak. Carmenzak (2015) beste bi autore berrien definizioak azpimarratzen ditu, aurretik esandakoa indartzeko:

Para Cerrillo (2001) la literatura juvenil, es, ante todo, literatura, y, aunque se le añade “infantil” o “juvenil”, es por la necesidad de delimitar una época concreta de la vida del hombre que está marcada por las capacidades de los destinatarios lectores y por gustos e intereses lectores muy concretos, así como por sus posibilidades de recepción literaria. Mientras que para Grissolle (1991) la

literatura infantil es “la escrita o narrada por niños y adultos cuya estructura y contenidos, teniendo un valor estético, satisface el gusto y la comprensión de los niños. (Carmenza, 2015: 81)

Hala ere, badira honekin ados ez daudenak, nahiz eta umea haur literaturaren hartzaile nagusi bezala kontsideratzen duten. Hau da, “Haur literatura” hitza zalantzan jartzen dutenak. López-en (1992) kasuan, “Haur Literatura” hitzaren zentzua birmoldatu behar dela dio, eta “haur irakurra” ren esanahira mugatu. Izan ere, literatura gozamen estetiko batekin elkarlotzen du eta umeek oraindik hau ez dutela sumatzen dio, hortaz, ez dutela literatura bezala hartzen. Halaber, Lopezek (1992) haur literatura gizarteak asmatu merkatua dela adierazten du.

Haur literaturaren inguruko definizioekin amaitzearen, Añorgak (2011) ahozketasunaren garrantzia haur literaturan azpimarratzen du. Umeari liburua objektu huts bezala aurkeztu beharrean, umeari liburua kontatu behar diogu eta berarekin liburuaren inguruan mintzatu, bestela, liburua norberarentzako objektu baliogabe batean bihurtzeko arriskua egongo da, garrantzia handirik izan gabe. Haurrengan iristeko entzun behar dela dio Añorgak (2011), eta helduok, noski, umei mintzatu. Halaber, autoreak dio egungo literatura pixkanaka ahozketasunera hurbiltzen doala, kontaldiak eta errezitaldiak direla medio.

2.1.2. Haur literatura motak

Cerveraren (1989) esanetan, haur literatura hiru modu ezberdinetan garatu da historian zehar, hortaz, hiru haur literatura mota ezberdinez hitz egiteko aukera dugu.

Lehenengoa, *berenganatutako edo errekuperatutako literatura* izango litzateke. Literatura mota honek umeentzat eginak ez diren produkzioak baina denborarekin umeek berenganatu dituztenak edota helduok umei egokitu dizkiegun produkzioak biltzen ditu. Haur literatura honen barruan ipuin tradizionalak edota folklorea dira nagusi.

Bigarrenik, *umeentzat sortutako literatura egongo litzateke*. Literatura mota honetan, produkzio oro umea hartzaile nagusia izanda sortzen da. Halaber, produkzio hauek sortzerako orduan, umeen baldintzak, ezaugarriak eta beharrak kontuan hartzen ditu, umeen joerak eta ikuskerak islatuta gera daitezen, literatura mota hau umeentzat interesgarria suertatzeko. Mota honen barruan, ipuinak, nobelak edota antzerki obrak nabarmentzen dira.

Azkenik, *helburu didaktikoak lortzeko erabilitako literatura* egongo litzateke. Eskolarako eginak dauden produkzioak biltzen ditu, gehienbat Haur Hezkuntzara nahiz Lehen Hezkuntzara bideratuta daudenak. Literatura mota honetako produkzioetan helburu didaktikoa da nagusi eta funts nagusia zerbait irakastea da. Hau kontuan izanda, produkzio hauek ez dute umearen kreatibitatea garatzen uzten, duten kreatibitatea baliogabea baita eta hortaz, liburua gozamen tresna bezala ikusaraztea oztopatzen du.

Carmenzak (2015) arestian aipatutako sailkapenaren inguruan hitz egiten du, lehenengo biekini bat etorri eta azkenengo literatura motan salbuespenak eginez. Autoreak haur literaturan beste mota bat adierazten du: *Abestietan, jolasetan eta asmakizunetan ematen den literatura*. Autore honek adierazten du, literatura mota hau haur folkloreakin harremanetan dagoela, honek garrantzia handia izanik, izan ere, folkloreak umeek kultura literariora lehen hurbilpenak ematea ahalbidetzen duelako.

2.1.3. Haur literaturaren ezaugarriak eta funtzioak

Atal honetan, Carmenzak (2015) haur literaturaren ezaugarriak adierazten ditu, literaturaren barruan dagoen genero bat dela eta ezaugarri propioak dituela esanez.

Hasteko, haur literaturak umea irudi mirezgarriak sortzera eraman behar du, eta hortaz, idazkera zalua, azkarra eta entretenigarria izan behar du, umeen arreta deitzeko. Bigarrenik, elkarrizketak ugariak eta garrantzi handikoak dira jenero honetan. Halaber, istorioan zehar deskribapenak baino, akzioak agertzea ohikoagoa izaten da, tentsio narratiboa sortzeko. Hirugarrenik, lengoaiaren garrantzia azpimarratzen du autoreak. Lengoiak, umearen hurbilekoa izan behar du, hau da, sinplea eta umeak ulertu eta kontrolatu ahal duena, bere testuingurura egokituta dagoena eta istorioarekin identifikatuta egotera ahalbidetzen duena. Gaiei eta pertsonaiei dagokionez, berdin gertatzen da, eta hauek, umeak bizi izandako esperientzietan eta bizipenetan oinarritu behar dira, horrela, ohiko gaiak umorea, abentura edo fantasia bihurtuz eta pertsonaiei begira, sorginak, munstroak, gurasoak edo umeak ohikoenak izanik.

Halaber, Carmenza (2015) haur literaturaren funtzioak zeintzuk diren zehazten saiatu da, nahiz eta oso zaila izan, historian zehar aldatzen joan baitira. Guztiok bat datoz esanez, literatura umei zuzenean irakasteko erabiltzen dela, baita gai anitzen inguruan sakontzeko materiala dela ere. Hala ere, Colomerrek (2010) haur literaturaren funtzioak hiru multzotan zehazten ditu:

Lehenengo funtzioa, *imaginario kolektibora atea irekitzea* izango litzateke. Funtzio hau, haur literaturaren barruan garrantzitsuenetarikoa da. Imaginario kontzeptua gizakiok mundua ulertzeko erabiltzen ditugun sinbolo, mito eta irudien multzoari deritzogu. Hortaz, hau oinarri izanda, umeei literaturaren bidez mundua ulertzea, besteekin duten harremana ulertzea eta haien nortasuna eraikitzea ahalbidetuko du.

Bigarren funtzioa, *umeei literaturaren bidez hizkuntza garatzea eta irudi literarioak ikastea izango litzateke*. Haur literaturak umeei hizkuntza ikastera eta irudi literario oinarritzkoenak ikasteko aukera ere eskaini behar die eta horretarako, askotan, jolasa erabilgarria izan ohi da. Modu honetan, umeei literatura munduaren inguruan, bere buruaren inguruan edota hizkuntzaren inguruan hitz egiteko erabiliko dute. Halaber, Colomerrek (2010) adierazten duen bezala, jolasa eta literatura harremanetan daude eta arestian aipatutakoa lortzeko, teknika ugari erabili ditzakegu, hala nola, pertsonaia ezberdinak irudikatze ahots ezberdinak erabiliz.

Hirugarren funtzioa, *literatura sozializatzeko eta mundua ulertzeko tresna bezala* ulertzea izango litzateke. Literatura mota honen bidez, umeari mundu erreala erakusten zaio, helburu didaktikoak alde batera utziz. Horregatik, haur literatura agentzia hezigarritzat hartzen da, familia edo eskola diren bezala.

2.2. IRAKURKETAREN INGURUAN

2.2.1. Irakurketa definizioa

Hainbat aditu izan dira irakurtzearen definizioa eta umeari garapenean duen garrantzia zehaztu dutenak.

Solék (1992) irakurtzearen inguruko definizioa ematerakoan, azpimarratzen du, irakurlearen eta testuaren arteko elkarrekintzan oinarritzen den prozesua dela, non irakurleak testuaren bidez bere helburuak asetzen dituen.

Puente (1996) honekin bat dator, eta aurreko definizioari gehitzen dio, irakurketa, pentsamendu prozesu bat dela, aurrezagutzak, hipotesiak eta estrategiak prozesuaren parte direlarik. Halaber, autoreak gehitzen du, irakurketa autore baten ideia idatzien eta irakurlearen kontzeptu, iritzi, eskema eta jarreraren arteko dialogoa dela.

Azkenik, eta irakurtzearen inguruko definizioarekin amaitzearen, Eliecerrek (2014) irakurketa prozesu konplexu bat bezala definitzen du, deskodetzean oinarritzen dena eta helburu nagusizat ezagutzak lortzea duena. Halaber, autoreak gehitzen du

irakurlearen aurreko esperientziek, irakurlearen interesa testuaren aurrean, testuingurua eta motibazioa baldintzatuko dutela irakurketa prozesua.

2.2.2. Irakurketaren helburuak

Irakurketa prozesuak dituen helburuak zehaztea ezinbestekoa da. Aipatzekoa da, lehenik eta behin, irakurketak helburu anitz dituela, izan ere, irakurlearen arabera eta honek irakurketari ematen dion zentzuaren arabera helburuak aldatuko direla. Hala ere, Sole-k (1992) irakurketaren inguruko helburu zehatz batzuk aipatzen ditu, beste batzuen artean eta hauek eskolan lantzeak berebiziko garrantzia dutela defendatzen du.

Lehenengo helburua, *argibide zehatz bat lortzeko irakurketa* izango litzateke. Irakurketa mota honek gai baten inguruan datuak bilatzeko egiten dugun irakurketa mota biltzen du.

Bigarrenik, *argibide orokor bat lortzeko irakurketa* legoke. Irakurketa mota hau testu baten ideia orokorrak lortzeko erabili ohi dugu eta hau lantzeak garrantzia handia du irakurketa kritikoa garatu ahal izateko.

Hirugarren helburuari dagokionez, *ikasteko irakurketa* egongo litzateke. Honetan, irakurketa emankorra eta kontrolatua izaten da, non irakurketa orokor batetik irakurketa zehatz batera igarotzen den.

Ondoren, *norberak idatzitakoa birpasatzeko irakurketa* aipatzen da. Kasu honetan, irakurketak, idatzitakoaren ikuspegi kritikoa garatzeko laguntzen digu.

Bosgarrenik, *disfrutatzeko erabiltzen dugun irakurketa* legoke. Irakurketa mota hau oso pertsonala dela esan daiteke, izan ere, pertsonaren eta gustuen arabera irakurketa modu ezberdinean disfrutatuko da.

Seigarrenik, *hartaile bati zuzendutako irakurketa* egongo litzateke. Kasu honetan, irakurketa, transmititu nahi dugun mezua hartaile batek ulertzeko egina dago, non intonazioa, galdera eragileak, isiluneak etab. nagusi diren.

Azkenik, *irakurketa ozena trebatzeko* egina dagoen irakurketa mota egongo litzateke. Irakurketa mota honen helburu nagusia irakurketan trebatzea da, garbi, arin eta zuzen irakurritz. (Solé, 1992)

Atal honekin amaitzearren, esan beharra dago, testu bat irakurtzeko orduan dugun helburuaren arabera irakurketa aldatu egingo dela. Bi mota aurki ditzakegu eta mota hauen arabera irakurketa baldintzatuta egongo da: Integrala eta xehea.

Integralari dagokionez, esan beharra dago, testu bat ze modutan eta nola irakurtzen den aztertzen duela eta bere baitan bi mota ezberdin ditzakegula: Islatzailea (testua behin eta berriro irakurtzen dugu ahal den informazio gehien atera ahal izateko) eta gainetikoa (testua irakurtzen dugu, gainetik eta asko pentsatu gabe) (Férrnandez, 2016).

Xeheari dagokionez, testu bat irakurtzerakoan irakurtzen dugunari egiten dio erreferentzia. Kasu honetan ere bi mota ezberdin ditzakegu: Arretatsua (testu bat irakurtzeko orduan arreta izan ohi dugu baina soilik interesatzen zaizkigun kontzeptuekin geratzen gara) eta gainbegirada (irakurketa azkar bat egiten dugu, ondoren, interesatzen zaigun gaien arreta jartzeko) (Férrnandez, 2016).

2.2.3. Irakurketa prozesatzeko motak

Sole-k (1992) irakurketa prozesuari erreferentzia egiten dioenean, bi mota ezberdin bereizten ditu.

Lehenengo irakurketa prozesu mota, “Bottom up” deiturikoa, edo behetik gora egiten den irakurketan, irakurleak testuaren elementu guztiak aztertzen ditu, hitzak, esaldiak, letrak, sintagmak eta esaldiak. Hauen bidez, irakurleak testuaren esanahia sortzen doa eta testuaren ulermena ziurtatzen du. Prozesu hau behetik gora egiten den prozesu hierarkiko bat da, edo beste modu batean esanda, sinpleenetatik konplexuraino egiten den irakurketa mota. Esan beharra dago, irakurketa mota hau urte askotan zehar erabili izan dela irakurketaren ikaskuntza eskoletan lortzeko.

Bigarren motan, “Top down” edo goitik behera egiten den irakurketa prozesua, guztiz kontrakoa defendatzen du. Kasu honetan, irakurleak aurretik dituen hipotesiak, eta aurrezagutzak erabiltzen ditu testuaren inguruko lehenengo kontzeptuak sortzen hasteko. Hipotesietatik abiatuz, testua prozesatzen hasten da, ondoren, lehenik zituen ideiak egiaztatzeko.

Azkenik, Rumelhartek (1977) hirugarren mota bat aurkezten du, prozesu elkareragilea. Hirugarren ikuspegi honek defendatzen du, irakurtzen dugunean aurreko bi prozesuak bertan daudela. Izan ere, irakurketa irakurlearen eta testuaren arteko elkarrekintzan oinarritzen da, eta hortaz, testuaren ulermen maila osoa lortzeko bi prozesuak beharrezkoak dira, hau da, hitzen azterketa, hipotesiak egitea, aurrezagutzak etab.

2.2.4. Irakurtzearen faseak

Testu bat irakurtzen dugunean fase ezberdinetatik igarotzen gara testua bere osotasunean ulertu arte. Sole-k (1992) honen inguruan aztertu eta gero, irakurketaren inguruan hiru fase ezberdin zehazten ditu eta guztiok igarotzen ditugunak irakurtzerako orduan: Irakurri baino lehen, irakurtzen ari den bitartean eta irakurri eta gero.

Irakurri baino lehen fasean, irakurleak irakurriko duenari buruzko eskema mental bat osatzen du, testuaren inguruko hipotesiak edota ideiak sortuz. Fase honetan, irakurleak testuinguruaren ezagutzan eta testuaren ezaugarrietan oinarritzen da. Halaber, testuaren inguruan ezagututako informazioa emateak garrantzia handia izango du, hala nola, zein den gaia edota zeintzuk diren pertsonaiak. Fase honen bidez helburu batzuk lortzea ahalbidetzen da, hala nola, aurrezagutzak aktibatzea, irakurketa egitera motibatzea edota hipotesiak sortzea irakurriko denaren inguruan.

Irakurtzen ari den bitartean, irakurleak hainbat ekintza egiten ditu. Alde batetik, irakurtzen ari dena gordetzen du, hurrengo ideiarekin lotu ahal izateko eta testuaren ulermena eta interpretazioa osatzen joateko. Halaber, irakurri ahala lehendik eraikitako hipotesiak egiaztatzen doa eta irakurriko duenari buruz hipotesiak ere egiten ditu. Bestetik, irakurleak prozesua ebaluatzen eta kontrolatzen joaten da, alderdi batzuen inguruan: Ideia nagusiak, bigarren mailako ideiak, informazioa egokia den ala ez... Fase honetan ere helburu batzuk lortzea ahalbidetzen digu, hala nola, hipotesiak egiaztatzea eta ebaluatzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzea, testuaren inguruko ulermena hobetzea edota informazioa bilatzen ikastea.

Irakurri eta geroko fasean, irakurleak testuaren oinarrizko informazioa gordetzen du, etorkizun batean erabilgarria izateko asmoz. Halaber, irakurketa ikasteko tresna bezala erabiliko du irakurleak, eta testuaren inguruan gogoratzen duena ezagutza berri bihurtuko du. Azkenik, fase honetan ematen diren helburuei dagokionez, hauek izango lirateke: Informazioa beste zereginetarako erabiltzea, testua laburtzeko gai izatea edota irakurketan lortutako ezagutzak beste gaitasun komunikatiboekin elkarlotzea.

2.2.5. Irakaslearen egitekoa irakurketa prozesuan

Bizitzako lehenengo urteetan, umeek jarduera eta ekintza anitz ikasten dituzte eta haien artean irakurtzea dago. Familiarekin bat, eskola izango da irakurketa prozesu hau baldintzatu eta gidatuko duen agentea, hortaz, irakasleok prozesu honen aurrean

laguntzeko teknika eta erraminta egokiak erabili behar ditugu. Fons-ek (2004) hiru alderdietan banatzen ditu irakasleen zereginak, betiere, irakurketan zentratuta.

Lehenengo alderdia, ikasle bakoitzaren abiapuntua ezagutzea da. Alderdi honek berebiziko garrantzia izango du, izan ere, irakurketaren inguruko abiapuntua ezagutuz, ikasle bakoitzari egokitzen den prozesua eskaini ahal izango diogu, horrela, irakurketan aurrerapenak eginez. Hala ere, hau ez da erraza izaten, izan ere, ikasle bakoitza desberdina da eta norberaren abiapuntua aldatuz joango da. Hortaz, hau lortzeko erraminta egokiena erabateko behaketan oinarritzen da, hau da, galderak eragilez edo gaiarekin harremanetan dagoen jarduerekin lagunduz. Halaber, ezinbestekoa izango da umei prozesu honen aurrean animatzea eta adore ematea. (Fons, 2004).

Bigarrenik, eta behin ikasle bakoitzaren abiapuntua ezagutuz, irakasleak prozesu honetan aurrera joatea ahalbidetzen duten erronkak eskaini behar dizkie ikasleei. Erronkak anitz izan ahal dira, baina Fons-ek (2004) adierazten duen bezala, egokiena eskuragarriak diren erronkak planteatzea eta erantzunen bilaketan orientatzea dela dio. Arestian esan bezala, ikasle bakoitza ezberdina da, hortaz, proposatuko ditugun erronkak askotarikoak izango dira, maila eta erritmo ezberdinetara egokitu ahal izateko. Alderdi honetan berebiziko garrantzia izango du irakasleok irakurle eredu bezala umeen aurrean aurkeztea, hau egoera ezberdinetan eginez, hala nola, ipuinak kontatzerakoan edota isiltasunean irakurtzerakoan ikustean.

Azkenik, praktika hobetzeko ebaluazioa egongo litzateke. Kasu honetan, ikasle bakoitzak egindako hobekuntzen eta prozesuaren arabera ebaluatuko da, izan ere, eta arestian aipatu bezala, oso zaila izango litzateke ikasle guztiak modu berdinean ebaluatzea haien erritmoa, prozesua eta izaera guztiz ezberdinak direnean. Halaber, irakasleak ere haien burua auto ebaluatzerara gonbidatu daitezke galdera eragileen bidez.

2.3. ESKOLA LIBURUTEGIAK

2.3.1. Eskola liburutegiak zer dira?

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, irakurtzeak garrantzia handia du bizitzako lehenengo urteetan. Gainera, azken urteetan gero eta liburu gehiago egiten dira haurrei bideratuta daudenak. Hortaz, Haur literaturak lehentasunezko lekua hartu behar du gaur egungo gure eskoletan. (Osoro, 2006). Hori lortzeko eskola liburutegiak dira tresnarik egokienak eta eraginkorrenak.

Hainbat autore izan dira eskola liburutegien inguruan hitz egin dutenak, hau definitzeko asmoz. Osororen (2006) esanetan, eskola liburutegia ikasle orok izan behar duen eskubide bat izan behar da, umeek jasotzen duten informazioa maneiatzen lagunduko dien teknikak eta tresnak eskainiz. Halaber, eskola liburutegiak eskolaren ardatz eta gune garrantzitsuena izan behar du; informazioa, erraminta, jarduera soziokulturalak etab. biltzen duena.

Era berean, Jiménez Martínezen (2012) esanetan, eskola liburutegiak informatzearen, hezitzearen eta olgatzearen funtzioa bete behar ditu, horrela, umeek sozializatzeko, harremanak ezartzeko, informazioa lortzeko tresnak garatzeko eta irakurketarako bidea sortzeko.

Ildo beretik jarraituz, Hezkuntza Zientzia Ministerioak¹ (1995) eskola liburutegiaren definizioa ematen du, hau hurrengoa izanik: Ikaskuntza sortzeko lekua izan behar da, non ikasleek eta irakasleek askotariko baliabide hezigarriak eskura dituzten eta, halaber, metodologia aktiboa eta parte hartzailea praktikan jarri ahal duten lekua izan behar da. Horrela, eskola liburutegia topaketa lekua bihurtuko da, komunikazioa eta trukaketa nagusi diren lekua eta currimulumeke edukiak lantzea ahalbidetzen duena. (...).

“La utilización de la biblioteca escolar plenamente integrada en el proceso pedagógico del centro favorece la autonomía y la responsabilidad de los alumnos en su aprendizaje. Es el lugar idóneo para la formación de los escolares en el uso de las diversas fuentes de información y para fomentar la lectura como medio de entretenimiento y ocio.” (HZM, 1995)

Azkenik, Chaos Lloret-ek (2006) eskola liburutegien beste ikuspegi bat eskaintzen du. Eskola liburutegiak kultur, arraza, ezaugarri eta behar ezberdinetako haur kopuru zabal bat hartzen duen kultur zerbitzua bezala definitzen du. Halaber, autoreak adierazten du, liburutegiek lan hezitzaile bikoitza egiten dutela, batetik, umeak irakurleak izateko prestatzen dituztelako eta irakurzaletasuna bultzatzen dutelako, eta bestetik, gizarte lan garrantzitsua egiten dutelako.

¹ Hezkuntza Zientzia Ministerioa hemendik aurrera HZM bezala izenpetuko da.

2.3.2. Funtzioak

Hainbat dira eskola liburutegiek betetzen dituzten funtzioak. Hezkuntza Zientzia Ministerioa (1995) zazpi funtzio ezberdin zehazten ditu eskola liburutegiak bete behar dituztenak (Ikus, 1. Grafikoa).

1. Grafikoa. Eskola liburutegiaren funtzioak.

1. Eskolan dagoen dokumentazio guztia biltzea, hala nola, material eta baliabide didaktiko guztiak.	2. Baliabide guztiak modu argi eta antolatu batean izatea, erabiltzea eta aurkitzea erraz suertatzeko.	3. Irakurketa bultzatzen duten jarduerak proposatzea eta aurre eramatea.
4. Informazioa euskarri ezberdinetan eskaintzea, behar kulturalak edota kurrikularrak asetzeko.	5. Testuinguru egokia sortzea, ikasleak informazio ezberdina maneiatzeko beharrezko gaitasunak lortzeko.	6. Beste zerbitzu eta administrazioekin bitartekari bezala jardutea.
7. Informazioaren zabalkunde kanalak sortzea.		

2.3.3. Ezaugarriak

Uragak (2015) eskola liburutegiaren eraikuntzei eta kokapenari garrantzia ematen die, esanez, liburutegia zentroaren toki guztietatik gertu egon behar dela, ume guztiak erabili ahal izateko. Era berean, eskola liburutegiak duen ordutegia malgua izan behar du, mailako eta ziklo guztietako umeek zerbitzua aprobetxatu ahal izateko. Bestetik, eskolako liburutegia, leku atsegina eta erakargarria izan behar dela dio, umeen arreta deitzeko eta bertan denbora atsegin bat pasatzeko gogoak sorrarazteko. Hortaz, hori lortzeko gunea argitsua izan behar dela dio, kolore argiak nabarmenduz eta altzariak, mahaiak eta apaingarriak modu egoki batean antolatuz. Azkenik, Uragak (2015) aipatzen du, eskolako liburutegiak eremuka antolatuta egon behar direla, ikasleek eman nahi dioten erabileraren arabera baliatzeko, hala nola, taldeka egoteko, liburuak isilik irakurtzeko, liburuak euskarri ezberdinetan erabiltzeko etab.

Azkenik, Osorok (2006) adierazten duen bezala, eskola liburutegi bat sortzeak ez ditu soilik, arestian aipatutako aldaketa estetikoak ekartzen; baita eskolako didaktikan

eman behar diren aldaketak ere, eta asko dira kontuan izan behar ditugun ezaugarriak. Irakasleak autoritatearen irudia alde batera utziko du eta ikasleen ikaskuntza prozesuaren laguntzaile aktiboa bihurtuko dira. Aldiz, ikaslearen papera ere aldatu egingo da eta hartzaile pasibo izatetik, norberaren ikaskuntza prozesuaren protagonista izatera pasatuko da, irudimenez beteta eta berritzailea izanik. Modu honetan, Osorok (2006) defendatzen du, eskola liburutegiaren bidez, talde lana, kooperazioa, pentsamendu dibergentea edota ardura bultzatzea lortuko den.

2.3.4. Agente ezberdinen papera

Eskola liburutegi baten funtzionamendua modu egoki batean eman dadin, bertan parte hartzen duten agente ezberdinen papera oso garrantzitsua izango da. Rodriguezen (1996) esanetan, hiru dira irakurzaletasuna bultzatzen duten agente garrantzitsuenak.

2.3.4.1. Familiak

Aditu asko dira familiaren garrantzia azpimarratzen dutenak umearen ikaskuntza prozesuan, izan ere, familia da umeen interesak eta gustuak ezartzen diren testuingurua. Hortaz, irakurzaletasuna pizterako orduan ez da ezberdin gertatuko. Gonzálezek (2000) familiaren eginbeharrak irakurzaletasuna pizteko sei alderdietan banatzen ditu:

- Seme-alabei eredu egoki bat eskaintzea, hau da, umeei haien gurasoak irakurtzen dutela ikusi behar dute, izan ere, lehenengo urteetan umeei ikusi ohi duten guztia imitatu nahi izaten dute.
- Umeei hizkuntza idatzira ohitu eta testu ezberdinekin harreman positiboak eratzea.
- Umeei egunero zerbait irakurtzea. Halaber, egoera hauek testuinguru eta egoera atseginetan eman behar dira, umeei irakurketa “egoera atsegina” bat bezala ikusteko.
- Umeen interesekin eta gustuekin bat datozen liburuak izatea.
- Telebista ikusteko denbora murriztea, izan ere, askotan umeei liburuak irakurtzeko jarduerara alde batera uzten dute telebista dutelako.
- Eskolarekin eta irakasleekin lan egitea, hala nola, irakurketa bultzatzen duten jardueretan parte hartuz.

2.3.4.2. Irakasleak edo eskolak

Eskola irakurzaletasuna bultzatzeko alderdi positibo gehien dituen agentea izango litzateke, betiere, irakurtzea plazerrarekin lotuz gero. (Rodríguez, 1996). Lehenik eta behin, irakasle klaustroa prest egon behar da eskola liburutegiak sortzeak ekartzen dituen aldaketa metodologikoak aurrera eramateko. Halaber, irakasle eta ikasleen artean sortzen diren harreman berriak ulertu eta errespetatu behar ditu. Aldi berean, ikasle bakoitzaren erritmo eta beharretara egokitzen diren erraminta berriak eskaini behar izango ditu. (Osoro, 2006).

Eskola liburutegien arduradunek ere ezaugarri batzuk izan behar ditu, Jiménez Martínezek (2012) esaten duen bezala. Hasteko, liburuzainaren funtzio nagusia ikasleei liburuaren zaletasunera sarbideak eskaintzea da. Hau lortzeko, liburuzainak edo eskola liburutegiaren arduradunak, ikasleen beharrak, interesak eta gaitasunak ezagutu behar ditu, horrela, haien izaerari egokitzen den liburu eskaini ahal izateko. Era berean, informazioa ikasleei eskaini behar die, mota guztietako euskarriak, trebetasunak eta oinarri kulturalak kontrolatuz. Azkenik, autoreak adierazten du, eskola liburutegiak modu egoki batean funtziona dezan, ezinbestekoa izango dela irakurketaren inguruko jarduera deigarriak eta interesgarriak antolatzea, eta, aldi berean, horien berri ematea ikasleak motibatuz jardueretan parte hartzeko.

2.3.4.3. Beste administrazioak edo liburutegiak

Azkenik, esan beharra dago beste administrazioak eta liburutegiak eskola liburutegiaren funtzionamenduan zeresan handia dutela. Alde batetik, administrazioek eskola liburutegiak sortu behar dituzte, funtzio egokiak betetzen dituzten liburutegiak eta ikasleei beharrak asetzen saiatzen direnak. Neurri berean, administrazioen esku dago bai irakasleok bai etorkizuneko irakasleek eskolako liburutegien inguruan formakuntza bat jaso ahal izatea, horrela, zerbitzu egoki bat eskaini ahal izateko. (Osoro, 2006). Bestetik, liburutegiek ere garrantzia handia dute, izan ere, eskolarekin batera norabide berdina jarraitzen dute, hau da, gizartearen irakurzaletasuna bultzatzea eta liburuak plazer tresna bezala ikustea.

2.3.5. Liburuak aukeratzeko irizpideak

Arestian esan bezala, eskola liburutegiak eragin handia du ikasleengan. Hortaz, liburutegiak eskaintzen dituen liburuak egokiak izan behar dira, ikasleen gustu, interes

eta beharretara egokituta. Hau egitea, askotan, ez da zeregin erraza izaten, hortaz, liburuak aukeratzeko laguntza eskatu ahal dugu liburuekin lan egiten duten eta gaien jakitunak diren testuinguru ezberdinetan. Gónzalezek (2000) adierazten duen bezala, asko dira zeregin honetan lagundu ahal dituzten pertsonak. Alde batetik, aholkuak eskatu ahal dizkiegu eskolako irakasleei, liburu saltzaileei edota irakurtzearen animazioan lan egiten duten profesionalei. Era berean, aldizkari espezializatueta aholkuak edo gomendioak ere aurkitu ahal ditugu.

Aholkuak eta laguntza ez ezik, badira irizpide anitz eskola liburutegia osatzen eta liburu egokiak hautatzen laguntzen dizkigutenak. Gónzalezek (2000) irizpide hauei erreferentzia egiten die, esanez, kanpo itxura (azala, ilustrazioak, letren tamaina), gaiak (abentura, poesia), edukiak (animaliak, abenturak, bidaiak), alderdi testualak (hiztegia, estiloa) eta umeen interesak, gustuak eta ulermen gaitasunak berebiziko garrantzia dutela. Halaber, Moraren (2007) esanetan, umeei liburutegian gai berritzaileak eta egungoak behar dituzte. Azkenik, Morak (2007) adierazten du, liburuak aukeratzeko orduan aurreiritziak saihestu behar ditugula eta tresna eta teknika egokiak erabili behar ditugula, umeei liburu eskaintza zabal bat emateko, irakurtzearen zaletasuna piztu ahal izateko eta ikasleek ikaskuntza prozesuan aurrera joan ahal izateko.

2.3.6. Gelako liburutegiak

Eskolako liburutegi atal honen barruan, ezinbestekoa da gelako liburutegiei aipamen bat egitea. Jiménez Rodríguez (2010) gelako liburutegiak definitzen ditu, esanez, gelako liburutegia ipuinak eta liburuak protagonistak diren gunea izan behar dela eta ekoizpen hauek umeei zuzenduta egon behar direla. Gelako liburutegiaren funtzio nagusia umeen irakurzaletasuna piztea da, eta hortaz, ipuinen eta liburuen ezaugarriak haien arreta deitzeko eginak izan behar dira.

Halaber, Gonzálezek (2000) gelako liburutegien inguruko funtzioei buruz aipamena egiten du eta zazpi funtzioetan banatzen ditu (Ikus, 2. Grafikoa).

2. Grafikoa. Gelako liburutegiaren funtzioak.

1. Umeei liburutetara hurbiltzea.	2. Irakurketa motibatzea.
3. Irakurtzeko ohiturak garatzea.	4. Izenburu eta autore berriak ezagutzea.
5. Irakurketarekin disfrutatzea lortzea.	6. Baliabideen eta materialen gune bezala erabilgarria izatea.
7. Ikasleei antolakuntza eta zaintze ohiturak barnetatzen saiatzea.	

Jiménez Rodríguez (2010) adierazten duen bezala, gelako liburutegi bat aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa izaten da alderdi batzuk kontuan hartzea. Lehenik eta behin, gelako liburutegia giro erakargarri eta interesgarri batean sortu behar dugu, horretarako apaingarriak eta elementu edo objektu ezberdinak erabiliz, hala nola, mahaiak, koinak edota alfonbrak. Halaber, umeei etxetik ekarritako objektuak ere izan ahal dira, umeei gune berri honen parte sentiarazteko. Bigarrenik, eta espazioari dagokionez, gelako liburutegiak jolasteko beste guneetatik at egon behar da, lasaitasun giro bat umeei eskaini ahal izateko. Ondoren, garrantzitsua da aipatzea liburuak umeen helmenetik hurbil egon behar direla, hauek askatasunez eta autonomiaz hautatu ahal izateko. Azkenik, gelako liburutegietan edukiko ditugun liburuak kontuan izan behar ditugu, izan ere, liburuak ezaugarri batzuk izan behar dituzte gune berri hau positiboa izan dadin: Umeen adinera egokituta egon behar dira, gai ezberdinak jorratu behar dituzte, forma eta estetika ezberdinetakoak izan behar dira umeen arreta deitzeko, umeen interes eta beharretan oinarrituta egon behar dira... Aipatzekoa da, arestian aipatu bezala, umeei etxetik liburuak ekarri ahal dituztela, jardueraren aurrean parte hartzea eta motibazioa sustatzeko. (Jiménez Rodríguez, 2010).

2.4. GAI TABUAK HAUR LITERATURAN

Azken atal honetan, gai tabuek haur literaturan duten garrantziari buruz hitz egingo da, honen definizioa zehaztuz eta bizitzako lehenengo urteetan lantzeak duen garrantzia azpimarratuz.

Hasteko, Pérezek (2010) "tabu" hitza "debehatuta" dagoen gauza edo kontzeptu bezala definitzen du eta, gehitzen du, "tabu" hitzak bere baitan biltzen dituela naturalak ez diren akzio edo jarduera multzoak. Era berean, autoreak azpimarratzen du "tabu" hitzak gizartean moralki onartuta ez dauden portaerak biltzen dituela, gizartean testuinguru politikoan, ekonomikoan, sozialean edota kulturean "arraro" ikusten direlako. Tabuak egotearen eta sortzearen arrazoi baten bila, Pérezek (2010) adierazten du gai tabuen inguruan sortzen diren ikuspegiak ez direla arrazoi tinko batean oinarritzen, baizik eta gizarte baten aurreiritzi eta mitoetan oinarritzen direla. Hortaz, gai tabuak gizartean ondo ikusita ez dauden gaiak izango lirategela dio eta hauei buruz hitz egitea, normalean, lan neketsua izan ohi dela.

Arestian esan bezala, gaur egun gizarteak onartzen ez dituen gai tabu anitz topa ditzakegu, betiere, aurkitzen garen testuinguruaren arabera. Alde batetik, hizkuntzaren inguruko tabuak egongo lirategela, hau da, kulturaren arabera esanahi desegokiak

dituzten hitzak edo esaerak hartzen dituztenak. Bestetik, elikaduraren inguruko tabuak ere badaude, gehienbat erlijioaren arabera izan ohi direnak. Era berean, sexualitatearen inguruko tabuak daude, bere baitan hartzen dituenak transexualitatea edota familia eredu berriak. Azkenik, eta beste batzuen artean, azpimarratzekoa da heriotzaren edota emigrazioaren inguruan sortzen diren tabuak, izan ere, gaur egun gero eta ugariagoa da horren inguruan aurreiritziak ere izatea. (Pérez, 2010).

Beste ildo batetik jarraituz, eta lan osoan zehar aipatu bezala, umeen irakurzaletasuna pizteko eta liburuak gozamen tresna ikusteko, ezinbestekoa da liburuak egungo gaiak eta gai berritzaileak jorratzea (Mora, 2007). Era berean, Arnalek (2011) adierazten du, umeei kurioak izan ohi direla jaiotzen direnetik eta behin eskolan hasiz, gai guztien inguruan jakin nahi izaten dutela, nahiz eta gai hauek erosoak edo positiboak ez izan. Hori oinarri hartuta, haur literaturan gai hauek agertzeak garrantzia handia duela ondorioztatu dezakegu. Baina, askotan, gai “tabuak” ikasgelan agertzen direnean irakasleok ez dakigu egoera hauei aurre egiten eta aurre egiteko erantzunik eta tresnarik ere ez dugu izaten. (Arnal, 2011). Hortaz, literatura bai eskolan eta bai familian, umeei gai tabuetara hurbiltzeko tresna bihurtzeko, umeei ere errealitatea den bezala ezagutzeko, egungo gizarteak gezurrezko errealitatea azaltzen baitu umeen begiradetara, errealitatea, esperientzia eta bizipen positiboak soilik direla sinesten utziz. (Arnal, 2011).

3. JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK

Gaur egun, gizartean, irakurtzeak garrantzia handia duela jakina da. Haur Hezkuntzan ere, garrantzia handiko prozesu bezala kontuan hartzen da eta hortaz, bizitzako lehenengo urteetan honen inguruko hastapenak egitea berebiziko garrantzia du. Ferlandek (2011) adierazten duen bezala, umeei ipuinak irakurtzeak askotariko ekarpen positiboak ekartzen dizkie, imajinazioa eta lengoia suspertzetik at. Irakurtzeak, umearen zentzu guztiak estimulatzeko, hala nola, motrizitate fina garatzea, entzutera gonbidatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak adierazteko bidea aurkeztea, kuriositatea areagotzea, ikaskuntza prozesua erraztea eta azkenik, harreman afektiboak helduarekin sortzea ahalbidetzen du. Haur Hezkuntzako D237/2016 Heziberri curriculumak ere, garrantzia handia ematen dio hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia lortzeari, umeei liburuak entretenitzeko eta gozatzeko baliabide bezala ikus dezaten: liburutegia erabiltzen hasiz edota literatura testu errazak dramatizatuz, beste batzuen artean. Hala ere, irakurketa prozesua luzea eta zailtasunez betetakoa

izan ohi da, hortaz, bai eskolan bai etxean txikitatik zaletasun eta interes hori bultzatzea ezinbestekoa da, irakurketari lekua, denbora eta garrantzia handia eskainiz, liburutegiaren kasua adibide izanik.

Ildo beretik jarraituz, esan beharra dago, egungo liburutegietan umeen irakurzaletasuna pizteko eta liburuak gozamen tresna bezala ikusteko, ezinbestekoa dela liburuak egungo gaiak eta gai berritzaileak jorratzea (Mora, 2007). Izan ere, umeek inguratzen dien munduarekiko kuriositate handiarekin jaiotzen dira eta gai guztien inguruan jakitun izan nahi dira, gaiak positiboak ala negatiboak izan (Arnal, 2011). Hortaz, haur literatura gai “deserosoak” edo ohikoak ez diren gaiak lantzeko erraminta aparta bihurtzen da haurraren bizitzako lehenengo urteetan. Gauzak horrela, literaturaren bidez, eta gai hauek lantzeko aukera eskainiz, umeek haren ingurua ikuspuntu anitzetatik ulertzea edota haien inguruan gertatzen diren egoeren aurrean erantzun zehatzenak bilatzera bultzatuko die. Hala ere, irakasleok gai hauei aurre egitea ozta-ozta lortzen dugu eta tresna, baliabide edo erramintak ez ditugu gure esku, gai tabuak lantzeko haur literatura bezalako tresna egokiak alde batera utziz.

Hortaz, lan hau egitearen arrazoi nagusia laburbiltzeko asmoz, esan daiteke, lana gai tabuetara hurbiltzeko eginda dagoela; era berean, haur literatura gai tabuak lantzeko erraminta aparta delakoaren kontzientzia hartzeko ere sortu da.

Arestian aipatutako kontuan hartuta, esan daiteke, gradu amaierako lan hau aurrera eramanda bete nahi diren helburu nagusiak hurrengoak direla: 1. Haur literaturara eta haur liburutegietara hurbiltzea. 2. Gai tabuetara hurbiltzea, ez soilik teorikoki baita adituei egindako elkarrizketen bidez. 3. Gai tabuak haur literaturan duten ikusgarritasunaren inguruan behaketa bat egitea. 4. Ateratako emaitzekin triptikoak burutzea.

4. METODOLOGIA

Lan osoan zehar aipatu bezala, nahiz eta egoera aldatuz joan, irakurzaletasuna eskolan bultzatu behar da eta horretarako denbora eta toki apropos bat izatea garrantzitsua da. Hortaz, literatura Haur Hezkuntzako etapan bultzatzeko asmoz, bai eskolan bai ohiko gelan liburutegi bat aurrera eramateak berebiziko garrantzia du. Halaber, bai eskolako liburutegian bai ohiko gelako liburutegian, gaur egun gizartean tabuak diren gaiak txikitatik lantzea eta normalizatzea oso garrantzitsua da, hauei ahotsa emateko eta gaiak ikusiak izateko. Hau guztia kontuan izanda, hurrengo orrialdeetan, haur literaturaren gai tabuen inguruko ikerketa lana aurkeztuko da.

4.1. TRESNAK

4.1.1. Elkarrizketa

Proposatutako lehenengo tresna haur literaturarekin harreman estua duten bost pertsoneri egindako elkarrizketetan oinarritzen da. Elkarrizketek lan honen alderdi kualitatiboa aztertzeko aukera eskaintzen dute; izan ere, adituen erantzunen bidez elementuak kategoriatan ezberdinetan sailkatzeko aukera izango dugu, kualitate edo nolakotasun bat adieraziz eta iritzi ezberdinak alderatzeko aukera eskainiz. Elkarrizketak² hamaika galderak osatzen dute eta haur literaturaren barruan gai tabuek duten garrantziaren inguruan aztertzea dute helburu nagusia. Era berean, tresna hau erabiliz, gai honen inguruan beste ikuspegi batzuk izatea ahalbidetuko da.

4.1.2. Behaketa

4.1.2.1. Gai tabuak

Atal enpirikoaren barruan aurrera eraman den bigarren tresna gai tabuak lantzen dituzten liburuen behaketa³ izango litzateke. Behaketak alderdi kuantitatiboa lantzeko aukera eskaintzen du; izan ere, gai tabu zehatz batzuk lantzen dituzten liburuen zenbakizko kopurua lortuko dugu, haur literaturan gai tabuak duten ikusgarritasuna ondorioztatzeko bidea ahalbidetuz. Tresna honen bidez, gai tabu zehatz batzuk duten ikusgarritasuna behatzea lortu nahi da helburu nagusi bezala. Era berean, liburuek lantzen dituzten gaiak eta hauen trataera eta adina ere zehaztuko dira behaketa fitxaren bitartez. Modu honetan, ikerketa honek haur literaturan gai hauek duten garrantzia agerian jarriko du.

4.1.2.2. Inbentarioa

Lan honen helburu nagusienetako bat behaketa egitea izanik, honi esker aurreikusita ez zegoen beste tresna bat erabiltzeko aukera eman da: inbentarioa. Gai tabuen behaketa aurrera eraman ahal izateko, ausaz hartutako liburu kopuru bat hausnartuko da; liburu bakoitzaren adina, trataera eta gaia adieraziz. Modu honetan, 150ko inbentario bat sortuko da, non gai tabuaz aparte, beste hainbeste liburu aurkituko diren, Haur Hezkuntzako gela batean egoteko egokiak izango direnak.

² Elkarrizketaren txantiloia ikusteko ikus 1. eranskina

³ Liburuen behaketa txantiloia ikusteko ikus 2. eranskina

4.2. PARTAIDEAK

4.2.1. Elkarrizketatuak

Elkarrizketak aurrera eramán ahal izateko, hainbat izan dira parte hartu duten partaideek: MV, haur literaturaren inguruan ilustratzailea eta idazlea; TA, euskal idazlea eta irakaslea; ML, haur literaturako aditua, irakaslea eta idazlea; MM, haur literatura liburuekin esperientzia duten bikotea eta XO, euskal idazlea. Elkarrizketatutako partaide guztiek gaiaren inguruan ezagutzak eta esperientziak dituzte, bai haien lanbideek gai tabuekin harremanetan egotea ekarri dielako, bai lehenengo pertsonan bizi edo lan egin dutelako.

4.2.2. Gasteizko Ignazio Aldekoa kultura etxea

Gai tabuen elkarrizketatik abiatuz, Gasteizko Ignazio Aldekoa kultura etxean gai tabuen inguruko behaketa bat egiteko irizpideak atera dira. Liburutegi honetan, ausaz harturiko 150 liburuko lagina oinarritzat hartu da, lagin horretatik gai tabu zehatz batzuk lantzen dituzten liburuen kopurua hausnartu ahal izateko: heriotza, familia eredu berriak, gaixotasun fisikoak/psikikoak, kulturartekotasuna eta bullying-a. Era berean, inbentarioa sortzeko liburutegi honetan aukeratutako 150 liburuak ere ezinbestekoak izan dira.

5. EMAITZAK

Atal honetan aurkeztutako eta praktikan aurrera eramandako proposamenen emaitzak aurkezten dira. Alde batetik, haur literaturarekin harreman estua duten bost pertsoneri egindako elkarrizketen erantzunak⁴ eta haien inguruko hausnarketak aurkezten dira, hauek konparatzeko asmoz. Bestetik, gai tabuak lantzen dituzten liburuen behaketen emaitzak agertzen dira, gaien inguruan behatutako datuak bertan islatuz. Azkenik, aurreikusita ez zegoen eta aurrera eramandako inbentarioaren emaitzak ere aurkezten dira.

5.1. ELKARRIZKETEN EMAITZAK

Hasteko, elkarrizketatutako adituei gai tabuak zer diren galdetzerakoan, XO, MM eta ML bat datozte gai tabuak aipatzean, onartuak ez diren edo saihesten diren gaiak direla esaterakoan. Ideia honi, MMk gehitzen dio, gai hauek izaera erlijioso, politikoa edota etikoa izan dezaketela. MLk ere azpimarratzen du, haur literaturan oso gutxi tratatzen diren gaiak direla, hauek lantzeko interesik ez dagoelako. Aldiz, TAK eta MVk gizartean gai taburik ez dagoela adierazten dute. TAK-ren kasuan, gizakiok tabuen sortzaileak garela azpimarratzen du, gai bati aurre egiten ez diogunean sortuz. Hortaz, TAK gai tabuak deitu beharrean gai deserosoak deitzea nahiago izaten duela adierazten du.

Era berean, gai tabuekin inolako esperientziarik eduki duten galdetzerakoan, XO eta TA gai tabuekin esperientziaren bat eduki dutela diote, heriotzarekin, gaixotasunekin, drogarekin edota gai taburen bat hurbiletik bizi duten pertsonekin harremana izaterakoan. Era berean, MVk eremu profesionalean gai tabuekin anekdota txikiak soilik bizi izan dituela dio, haren obra batean gai tabu batekin erlazioa zuen elementu bat agertzearen ondorioz gertatutakoa. Aldiz, MMk eta MLk gai tabuekin inolako esperientziak ez dutela izan adierazten dute.

Elkarrizketatutako bost adituei bereziki hunkitu edo gustatu zaien gai tabuak lantzen duten literatur lanengatik galdetzerakoan, bat datozte gai tabuen inguruko obraren batek bereziki hunkitu diela esaterakoan. Adituen erantzunak gai ezberdinak lantzen dituzten obrak biltzen dituzte, hala nola, familia eredu berriak, sexualitatea, heriotza, guda etab. Hala ere, aditu guztiek aipatutako obretan gehien azpimarratzen

⁴ Elkarrizketen erantzunak ikusteko ikus 3. Eranskina

dutena gaia nola lantzen den, egiten den eran eta autoreak tratatzen duen modua da, obra hunkigarria eta berezia bihurtuz.

Haur literaturan gai tabuek duten ikusgarritasunarekin murgiltzeko, gai hauek haur literaturan azaltzea beharrezkoa den galdetu zaie adituei. Bost adituek bat datozte gai tabuak haur literaturan presentzia eduki behar dutela adierazterakoan. Hala ere, TAK azaltzearen eta agertzearen arteko ezberdintasunak aipatzen ditu, izan ere, haur literaturaren funtzio nagusia ez dela gai tabuak azaltzea izan behar, baizik eta hauek azalaraztea modu natural batean. XO, azken ideiarekin bat dator, izan ere, gaiak modu natural batean aurkeztea oso garrantzitsua dela dio, inolaz ere errealitatea edulkoratuz edo faltsutuz. Halaber, adituek gai hauen inguruko irakurketak noiz, zein adinarekin eta zein eratan egin behar da ere garrantzia handia duela adierazten dute. Era berean, MMk eta MVk gai tabuak haur literaturan azaltzea garrantzia handia dutela diote, modu natural batean, errespetuarekin eta gai hauek ezagutzera ekartzen duten ahala. Aldiz, MLk umeek aurreiritziak ez dituztela dio, hortaz, gai guztiak landu ahal direla dio, gai tabuetan zentratu barik.

Aldiz, Haur literaturaren barruan gai tabuei behar beste garrantzia ematen zaien galdetzerakoan, ideia kontrajarriak agerian geratu dira adituen artean. MVk, MLk eta MMk gai tabuei haur literaturan behar den garrantzia ematen zaiela uste dute, esanez, gaur egun literaturaren bidez gai asko lantzen direla, batzuetan literatura bera lantzen den baino gehiago. Azken ideia honekin TA bat dator, gehituz, literaturari eman behar zaiola garrantzia gehien eta baloreak edota gai tabuak lantzen badira obra aberasgarriagoa izango dela. Halaber, TAK adierazten du gai tabuak modan daudenean garrantzia handia hartzen dutela, ondoren, hauek ahaztuz. Aldiz, XOk beharrezkoa den garrantzia ez zaiola ematen adierazten du. Hala ere, XOk urte batzuetako literaturarekin alderatuz askoz gehiago lantzen diren gaiak direla dio, nahiz eta oraindik asko geratzen den egiteko.

Era berean, gai tabuen inguruan behar beste informazioa dagoen galdetzerakoan, adituen artean ideia kontrajarriak agertzen dira ere. Gai tabuen inguruan beharrezkoa den informazioa dagoenaren alde MV, ML eta MM agertzen dira, gai tabuen inguruan beharrezkoa den informazioa dagoela baieztatuz eta gaur egungo gizartean edozein gaiaren inguruan informazioa dagoela esanez. Aldiz, XOk gai tabuen inguruko informazio behar adina ez dagoela uste du baina lehen baino informazioa bilatzeko erraztasun gehiago ditugula azpimarratzen du. Azkenik, TA hezkuntzaren munduan zentratzen da eta beharrezkoa den informazioa ez dagoela adierazten du, izan

ere, nahiz eta gaien inguruan jantzita gaudela adierazten duen, gero ez dakigula hauei nola aurre egin aipatzen du.

Bestetik, Haur literaturan zer gai landu beharko liratekeen galdetzerakoan, adituek gai anitzak aipatu dituzte. XO, MM eta TA bat datozte adierazterakoan heriotza edo gaixotasunak landu behar diren gaiak direla. Era berean, TAg suizidioen eta sexuaren inguruan obra gehiago idaztea ere garrantzitsua dela ikusten du. XOk ere gehitzen du, familia eredu berriak, gai kulturalak edota ezberdintasuna ere landu daitezkeela. MVk, aldiz, nahiz eta haur literaturan lantzeko gai guztiak garrantzitsuak direla esan, haur transexualitateari garrantzia ematen dio, ez delako tratatu eta garrantzitsua delakoan. Halaber, beste gai batzuei haur literaturan presentzia ematea ere beharrezkoa dela dio. Aldiz, MLk haur literaturan lantzeko beharrezkoak diren gairik ez daudela adierazten du, izan ere, bilduma ezberdinak daude gai anitzak lantzen dituztenak.

Adituei egungo gizartea gai tabuei aurre egiteko prest dagoen galdetzerakoan, hainbat izan dira gai honen inguruan jasotako erantzunak. MVk gizartea prest dagoela adierazten du eta gehitzen du gai hauek lantzeko erramintak ere haien kabuz bilatu behar dituztela. MMk honekin bat dator, esanez, erramintak eta baliabideak badaudela baina zalantzan jartzen du familietara eta eskoletara behar beste ailegatzeko diren. Aldiz, XOk gai tabuei aurre egiteko gizartea prestatuta ez dagoela adierazten du, gai batzuk ez direlako jorratzen inolako testuinguruetan. TA-ren kasuan, eskola pribatuak eta publikoak bereizten ditu eta pribatuak gai hauei ez dietela aurre egiten baieztatzen du, ideologikoki ez zaielako interesatzen. Aldiz, adituak adierazten du eskola publikoek eta familiek baliabideak dituztela baina ez dakitela gai hauei nola aurre egin. Ildo honetatik jarraituz, ML-k zalantzan jartzen du gizartea prestatuta egotea, eta gehitzen du, eskola prestatuta egon beharko litzatekela, familien kasuan zailagoa izanik, familia bakoitzaren izaera dela eta.

Zalantzarik gabe aditu guztiek baiezkoa eman dute haur literaturak gai tabuen eza gutzan laguntzen duela galdetzerakoan. MVk dio, haur literaturak gai tabuen inguruko beste ikuspegi bat emateko aukera eskaintzen duela, gaiak atseginagoak eta erakargarriagoak eginez. Era berean, TAg gehitzen du gaiak era naturalago batean bizitzera ere laguntzen duela. ML-ren kasuan, haur literaturak gai tabuak normalizatzen diren aldetik laguntzen duela adierazten du, argituz, literaturaren bidez gaiekin harremanak izatekotan, gaiak normaltasun handiagoz hartzeko aukera izaten dugula. MMk aipatzen du, liburuetan erabiltzen den haur hizkera eta ilustrazioei esker,

hartzaileari hurbiltzea eta gai hauen ezagutzan laguntzen duela. Azkenik, XOk gehitzen du, literaturan gai hauen erabilerari esker, pertsona irekiak eta gogoetatsuak izatera ere laguntzen duela.



Gai tabuak bai gizartean baita haur literaturan ere ikusiak izateko proposamen edota irtenbideengatik galdetzerakoan, erantzunak anitzak izan dira eta tresna ezberdinak proposatzen dituzte. Alde batetik, MVk haur literatura modu natural eta poetiko batean egitea proposatzen du, umorez, samurtasunez eta ilustrazioz lagunduta doana. TAK, azpimarratzen du, gako nagusia autoreek modu libre batean gaiak tratatzea eta idaztea dela, helburu didaktikoak alde batera utzita. XOk proposamen zabala aipatzen du, esanez, erakunde publikoek liburuaren zerrendak egin beharko lituzketela eta ikastetxeetara zabaldu, irakurri ondoren, ikastetxeetan mahainguruak antolatuz eta gai tabuen inguruko esperientziak bizi dituzten pertsonak gonbidatuz. Aldiz, gainontzeko bi adituek ez dute proposamenik adierazten. MM-ren kasuan, haien lanbidea dela eta gai tabuak ikusiak izateko ahal duten guztia egiten dutela diote. Aldiz, MLk gizartean gai tabuak ikusiak izateko nahikoa egiten dela adierazten du, esanez, gaur egun garrantzia gehiago ematen zaiola baloreak transmititzeari literatura lantzeari baino.

Azkenik, Haur literaturan gai tabuak lantzeko gaiak, pertsonaiak, egoerak edota jarrera berritzaileengatik galdetzerakoan hainbat izan dira adituek emandako erantzunak. MV eta XO bat datozte adierazterakoan pertsonaiak errealak eta bizitzarekin proposatu behar direla, sinesgarriak izatea eta egoera erreal batetik abiatuta. Halaber, MVk gehitzen du istorio bat gertatzea eta transmititzea ere ezinbestekoa dela. TA aurrekoarekin bat dator eta gehitzen du hartzaileek pertsonaia horiekin identifikatuta sentitu behar direla, umeei zuzendutako obrak baitira. Gaiei begira, TAK gai naturalak eta errespetuan oinarritzen diren gaiak proposatzen ditu eta MM-ren kasuan, gaixotasunak, heriotza, generoen arteko ezberdintasunak eta ezberdintasun fisikoak gehitzen dituzte. Jarrera eta ekintza berritzaileen inguruan, TA da aipamena egiten duen bakarra, esanez, berdintasuna gehiago lantzea garrantzitsua dela eta sexu rolen trukea nabaria izatearen alde agertzen da. Azkenik, MLk galdera honen aurrean ez du tresna egokiena aurkitzen eta gaiak askatasunarekin landu behar direlakoan oinarritzen du haren proposamena.

5.2. BEHAKETAREN EMAITZAK

5.2.1. Heriotzaren inguruko behaketaren emaitza

<u>EMAITZAK</u>	<u>HERIOTZA LANTZEN DUTEN LIBURUAK</u>	
<ul style="list-style-type: none"> • 150ko laginatik %3.3k lantzen du heriotza. 	<p>→ * <i>Zirkua amets</i></p>	<p>Liburu guztiak bigarren zikloan lantzeko bideratutak daude.</p> <p style="text-align: center;">↓</p> <p>Lehenengo zikloan gai honen ikusgarritasuna eskasagoa.</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Gaia, haur literaturan oso ikusgarritasun gutxi duela esan daiteke. 	<p>* <i>Nire lagun ikusezina</i></p>	
<ul style="list-style-type: none"> • %40k gaia lantzeko animaliak aukeratzen ditu protagonista bezala eta %60k pertsonak edota umeak. 	<p>* <i>Ez da erraza katagorri</i></p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Oro har modu zuzen batean lantzen da gaia, heriotza argi azalduz. 	<p>* <i>Adio, adio!</i></p>	
	<p>* <i>Betiko</i></p>	

5.2.2. Gaixotasunen inguruko behaketaren emaitza

<u>EMAITZAK</u>	<u>GAIXOTASUNAK LANTZEN DITUZEN LIBURUAK</u>	
<ul style="list-style-type: none"> • 150ko laginatik %3.3k gaixotasunak lantzen ditu. 	<p>→ * <i>Bat denontzat eta denak batentzat</i></p>	<p>Ipuin gehienak bigarren zikloko haurrentzat bideratuak daude.</p> <p style="text-align: center;">↓</p> <p>"Bat denontzat eta denak batentzat" izan ezik, 0-6 urteko umeentzat bideratuta dagoela.</p>
<ul style="list-style-type: none"> • %100ek gaixotasun fisikoak lantzen ditu. 	<p>* <i>Marraztuidazu gutun bat</i></p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Haur literaturan ikusgarritasun gutxi duen gaia dela esan daiteke. 	<p>* <i>Olentzeroren malutak</i></p>	
<ul style="list-style-type: none"> • %40k animaliak erabiltzen ditu protagonista bezala gaia lantzeko. 	<p>* <i>Gabon zuri (beltza)</i></p>	
<ul style="list-style-type: none"> • %60k aldiz, umeak edota pertsonak erabiltzen ditu. 	<p>* <i>Supositorioak otsoarentzat</i></p>	




5.2.3. Familia eredu berrien inguruko behaketaren emaitza

EMAITZAK	FAMILIA EREDU BERRIAK LANTZEN DITUZTEN LIBURUAK	Askotariko familia ereduak tratatzen dira:
<ul style="list-style-type: none"> 150ko laginatik %6k lantzen du familia eredu berriak. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Hankaz gora du Amak mundua</i> 	<ul style="list-style-type: none"> <i>Gurasobakarra</i> <i>Guraso banandua</i> <i>Seme adoptatua</i> <i>Homosexualak</i> <i>Aiton-amonekin bizi direnak</i>
<ul style="list-style-type: none"> Behatutako gai tabuetatik gehien lantzen den gaia da. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Hara!</i> * <i>Etxe bitan bizi naiz</i> 	
<ul style="list-style-type: none"> %33.3k animaliak protagonista bezala erabiltzen ditu gaia lantzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Kamile aita eta ama ez daude haserre</i> * <i>Jafta</i> 	<div style="border: 1px solid red; padding: 5px;"> Liburu guztiak 3 urte baino gehiago duten umeentzat dira. </div>
<ul style="list-style-type: none"> Eta %66.6k ume bat aukeratzen du protagonista bezala. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Ume hura eta agure hura</i> * <i>Familia giroan</i> 	<div style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> Lehenengo zikloan gai hau gutxi lantzen dela esan daiteke. </div>
<ul style="list-style-type: none"> Oro har, gaia modu arin eta natural batean azaltzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Ane eta ahatetxoak</i> * <i>Edur ihesi</i> 	

5.2.4. Kulturartekotasuna eta emigrazioaren inguruko behaketaren emaitza

Emaitzak	Kulturartekotasuna eta emigrazioa lantzen dituzten liburuak	%40k kulturartekotasuna lantzen du eta %60k, aldiz, emigrazioa.
<ul style="list-style-type: none"> 150ko laginatik %3.3k lantzen du kulturartekotasuna edo/eta emigrazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Salimarentzat oparia</i> 	Oro har ipuin guztiak hiru urtetik gorako haurrentzat eginak dira.
<ul style="list-style-type: none"> Haur literaturan ikusgarritasun gutxi duten gaiak dira. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Grvs, nire laguna</i> 	
<ul style="list-style-type: none"> Oro har, zeharkako modu batean emigrazioa ageri da kulturartekotasunaren atzean. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Semaforoko ipuina</i> 	"Gure inguruko jendea" izan ezik, lehenengo zikloan ere landu daitekeena.
<ul style="list-style-type: none"> Errespetuan oinarritutako istorioak, era natural eta arin batean tratatuak. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Gure inguruko jendea</i> * <i>Otsadarreko kolore guztiak</i> 	

5.2.5. Bullying-aren inguruko behaketaren emaitza

EMAITZAK	BULLYINGA LANTZEN DUTEN LIBURUAK	
<ul style="list-style-type: none"> 150ko laginatik %3.3k lantzen du bullying-a edota bazterkeria jarrerak. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Sasoi onean</i> 	<div style="border: 1px solid red; padding: 5px;"> Bazterkeria jarrerak nabarmenak dira arrazoi ezberdinak direla medio. * <i>Itxura fisikoagatik</i> * <i>Gaixotasun bat izateagatik</i> * <i>Ezberdina izateagatik</i> </div> <div style="border: 1px dashed black; border-radius: 50%; padding: 10px; margin: 10px 0;"> Behatutako liburuetatik bi dira haur hezkuntzako lehenengo zikloan lantzeko gomendagarriak. </div> <div style="border: 1px solid red; padding: 5px;"> Lehenengo ziklora bideratutako ipuin gehien dituen gaia. </div>
<ul style="list-style-type: none"> Haur literaturan ikusgarritasun gutxi duen gaia da. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Zer da zalaparta hau?</i> 	
<ul style="list-style-type: none"> %80k gaia lantzeko animaliak erabiltzen ditu protagonista bezala. 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Ortzadar arraina, gera naiteke zurekin?</i> 	
<ul style="list-style-type: none"> * <i>Gabon zuri (beltza)</i> 	<ul style="list-style-type: none"> * <i>Ni ez naiz txerria</i> 	
<ul style="list-style-type: none"> Modu zuzen eta arin batean lantzen den gaia da, betiere ilustrazioz lagunduta. 		

5.3. INBENTARIOAREN EMAITZAK

Arestian aipatu bezala, aurreikusita ez zegoen beste tresna erabiltzeko aukera eman da: 150ko liburuen inbentarioa. Inbentario honetako liburuak ausaz hautatuak izan dira eta banan-banan hausnartu eta gero, hurrengo alderdiak zehaztu dira behaketa fitxaren bidez: izenburua, gaia, adina eta gaiaren trataera/deskripzioa. Modu honetan, Haur Hezkuntzako gela batean landu ahal diren liburuen lagin aberasgarria bat lortu da; gai anitzak lantzeko aukera ahalbidetzen duena eta nahien, beharren edota gustuen arabera erabili ahal dena.

Inbentarioaren emaitzak⁵. Gasteizko Ignazio Aldekoa kultura etxea.

	Izenburua	Gaia	Adina	Gaiaren deskripzioa
1	Nondik datoz umeak	Sexualitatea.	0-4 urte	Modu natural eta deigarri batean tratatzen du sexualitatearen gaia, ilustrazioz lagunduta.
2	Igor	Ume baten abenturak.	0-6 urte	Lau urteko edozein ume bizi ohi dituen istorioak kontatzen ditu fantasia puntu batekin.
3	Hartza eta kattalin, munduan barrena noazenean	Adiskidetasuna.	0-6 urte	Kattalin bere lagun hartzarekin bizitzen dituen abenturak kontatzen dira marrazki deigarrien laguntzarekin.
4	Luka eta denbora izozteko makina	Gauza garrantzitsuen iraupena.	0-6 urte	Protagonistak gustuko dituen gauzak argazki kamera batekin argazkitzen ditu, betirako iraun dezaten.
5	Zirkua amets	Heriotza.	+ 5 urte	Ume batek bere amonarekin zirkura doala amets egiten du. Amets horretan, zerura igo eta haren amonarekin eta zirku berarekin topo egiten du.
6	Hiru txerrikumeak	Lanaren garrantzia.	+3 urte	Etxea egiteko lan gehiago egiten duen txerria da azkenean otsotik anai guztiei salbatzea lortzen duena.
7	Hankaz gora du Amak mundua	Familia eredu berriak/ Etxegabe dauden familiak.	+ 3 urte	Neska batek haren ama egoera txar batean nola ikusten duen kontatzen du, modu natural eta arin batean.
8	Hara!	Familia eredu berriak.	+ 3 urte	Neska batek egunerokotasunean haren amonarekin egiten dituen gauzak kontatzen ditu.
9	Nire katua, munduko kaikuena	Umeen inozentzia.	0-6 urte	Bere elefanteari katua deitzen dio eta katuekin alderatzen du.
10	Urdaburutarrak	Sexu rolen apurketa.	+ 4 urte	Ama etxeko lanaz beti arduratu egin da, haserretu eta etxetik joaten da egun batean. Etxeko gizonak haren baliotasunaz konturatzen dira, bueltatzerakoan guztion artean etxeko lanak eginez.
11	Nire ama	Sexu rolen apurketa.	0-6 urte	Neska batek bere ama nahi duen guztia izan ahal dela kontatzen du.
12	Lulu eta izei umezurtza	Adiskidetasuna.	0-6 urte	Gabonetako istorio baten bitartez, izeiaren ametsa lortzeko adiskidetasunak duen garrantzia tratatzen du.

⁵ Espazio falta dela eta, inbentarioaren emaitzen zati bat 4. eranskinean aurkitu ahal da.

13	Tunela	Familiaren garrantzia.	+ 3 urte	Egoera txar baten aurrean arreba bere nebari gairitzera laguntzen dio eta familia duen garrantziaz jabetuko dira.
14	Bi ahuntzak	Adiskidetasuna.	3-6 urte	Nahiz eta bere jabeek banantzen saiatu, bi ahuntzen adiskidetasuna jartzen diren oztopoak baino sendoagoa da. Jabeek etsita, bi ahuntzak elkarrekin egotea onartzen dute, pozik egon daitezten.
15	Nire lagun ikusezina	Heriotza.	+ 5 urte	Aneri bere amona hil zaio. Ondorioz, Anek txuri beltzeko irudia hartzen du, goibel eta triste. Egun batean, lagun bat agertzen da bere izen bera duena baina kolorez beteta eta pozik dagoena. Kolorezko Anek, heriotzak dakarren ondorioak azaltzen dizkio.
16	Euria ari duenean	Baikortasuna.	0-6 urte	Protagonistarentzat egun euritsuak festak bezalakoak dira, izan ere, aitak autoz eramaten du eskolara, putzuetan, plisti-plasta ibiltzen da eta alegiazko arrainak harrapatu ahal ditu. Eguneroko egun ilunei beste modu batez begiratzea ahalbidetzen du ipuin honek.
17	Etxe bitan bizi naiz	Familia eredu berriak.	+ 6 urte	Sararen gurasoek banantzea erabaki dute. Hasiera batean Sarak ez du ulertzen eta triste dago baina denborarekin, bi etxetan bizitzeak dituen abantailak ikusiko ditu.
18	Izan amets	Norberaren buruarekiko konfiantza.	+ 5 urte	Lili izar bat izan nahi du baina ez da kontu erraza. Amaieran, izotz gainean ibiltzen hasten denean eta ondo dabilela ikusten duenean hasten da bere buruan sinesten.
19	Munduko etxerik handiena	Apaltasuna.	+3 urte	Barraskilo semeak etxe handi bat izan nahi du. Aitak istorio bat kontatu eta gero, konturatu egiten da, batzuetan, gauza txikiak handiak baino hobeto direla.
20	Artzaina	Loa eta ametsak.	+2 urte	Serafin arkumeak lo hartu baino lehenago pentsatzen dituen istorioak kontatzen ditu. Umeetan ohikoa izan ohi da ardiak kontatzea lo geratzeko eta liburu honetan, beste bertsio bat eskaintzen digute ardiaren ikuspuntutik.
21	Zerriak	Naturarekiko errespetua. Higiene ohiturak.	+2 urte	Txerriek zelaia eta natura kakaztuta uzten dute. Hau ikusita, Serafin protagonistak kontzientziatzen saiatzen da baina kasurik egiten ez diotela ikusterakoan, dena bera bakarrik jasotzen du.
22	Semaforoko ipuina	Emigrazioa.	+ 3 urte	Eskolan eguneroko ipuina kontatu ezinik, protagonistak azal iluneko gizon batekin topatu da hiriko semaforo batean. Gizonak, bere bizitzako ipuin laburra kontatu egiten dio.



23	Munstro kirasduna	Munstro nazkagarri baten abenturak.	2-6 urte	Munstro kirasdunak higiene ohitura oso txarrak ditu baina hala ere, berarekin ondo ez pasatzea ezinezkoa da.
24	Inork ikusi al ditu guraizeak?	Gauzen erabilera anitzak.	0-4 urte	Antton bere guraizeak ditu gogoko baina egun batean, alde egiten dute eta mundutik zehar bidaiatzen joaten dira beste gauza eta bihurrikeria batzuk egiten duten bitartean.
25	Antton eta eguberrietako oparia	Zintzotasuna. Eskuzabaltasuna.	+ 5 urte	Antton lera baten opari bat erori dela konturatu egin da. Haren bila joaten da, abentura ezberdinak biziz, oparia bueltatzeko asmoz. Aurkitzen dutenean, lerak Anttonentzako opari bat dela esaten die.
26	Z familia	Errealitatea vs fantasia.	0-3 urte	Z familia, familia arrunta da eta egunerokotasunean gainontzeko familiak egiten dituzten gauzak egiten dituzte. Hala ere, haien fantasia zirku batean aritzea da eta horrekin amets egiten dute egunero.
27	Naia eta Nabil detektibideak	Ume batzuen abenturak. Fantasia.	+ 3 urte	Naia eta Nabil detektibeetara jolasten dira. Amaren lepokoa ontzi batean ezkutatu eta ordutik aurrera hortik aterako dena txundituta utziko die.
28	Aitona Patxiren txirikordak	Norberaren buruaren onarpena.	0-3 urte	Aitona patxik txirikorda oso luzeak ditu eta mundu guztiari gustatzen zaizkio. Aitonak beti esaten du lurrera iristen direnean moztuko dituela baina hori gertatzerakoan, hainbeste ditu maite non ez dituen mozten.
29	Azeri Jauna	Laguntza jarrerak.	+ 6 urte	Azeria, untxien bila joaten da, hauek harrapatu eta jan ahal izateko. Gauean, azeria basotik galdu egiten da eta untxi bat izaten da etxerako bidea aurkitzen laguntzen diona.
30	Txori horia	Partekatzeak duen garrantzia. Pertsonen ezberdintasunak.	+ 3 urte	Txori horia ezberdina da, ezin du hegan egin. Hala ere, asmakizunak egiten trebea da eta hegan egiteko asmakizun bat egiten du. Besteekin partekatzen du eta pertsona guztiak ezberdinak diren lurralde batera joaten da.
31	Zaldi urdin bat margotu zuen artista	Estereotipoak apurtzen.	0-3 urte	Modu arin batean artista batek ohikoak diren estereotipoak apurtzen ditu, izan ere, animalia ezberdinak era anitzetan margotzen ditu, imajinazioa garatuz.
32	Auzoak	Elkarlana. Adiskidetasuna.	+ 3 urte	Animaliek ura nondik datorren ez dakite eta guztion artean erantzun baten bila joaten dira. Azkenean, hontza negar dabilela konturatzen dira eta honi alaitzen eta pozten saiatzen dira.
33	Sagu zopa	Maltzurkeria.	3-6 urte	Erbinudeak sagu zopa egin ez dezan, sagua istorio ezberdinak kontatzen dizkio honi engainatuz.

34	Zzz... loaren liburua	Loa.	0-3 urte	Animali ezberdinak lo egiten duten eraren bidez, loak duen garrantzia eta loari buruz hitz egiten duen liburua da.
35	Piztiak bizi diren lekuan	Beldurra eta honen gainditzea. Fantasia.	+ 4 urte	Max-en istorioa kontatzen da, zeinek bihurrikeriak egiteagatik afaldu gabe ohera joaten dena. Max bere logelatik leku fantastiko batera abiatu egiten da, bere beldurrei eta munstroei aurre eginik.
36	Belenen jaio zen haurtxoa	Jesusen jaiotza. Erlijioa.	0-6 urte	Jesusen istorioaren beste bertsio bat eskaintzen du liburu honek, umeei egokituta eta ilustrazioz lagunduta.
37	Perez Sagua, nora doaz zure hortzak	Fantasia.	0-6 urte	Perez Saguaren istorioaren beste bertsio bat eskaintzen digu, umeei azalduz nola lortzen dituen saguak hortzak.
38	Hartza eta tximeleta sarea	Laguntzazko jarrerak. Laguntasuna.	0-6 urte	Hartzak, egunero aintzirara erortzen diren tximeletak salbatzen ditu. Egun batean, bera aintzirara erortzen denean, aurretik salbatutako tximeleta guztiek hartza salbatu egiten dute.
39	Jonen lanbideak	Fantasia eta lanbideak.	+ 4 urte	Jon izeneko mutil batek hainbat lanbide ezagutzen ditu eta handitan guztiak izan nahi dituela pentsatzen du.
40	Hareazko gazteluaren kanta	Familiaren garrantzia.	0-6 urte	Aita eta seme batek osatzen dute liburu honen familia. Gazteluak egiterako orduan, semeari beti apurtzen zaizkio eta etsita, aita bere ondoan egongo da, lagunduz eta animatuz.
41	Zozoa	Botere abusua.	+ 4 urte	Zozoak otsoa bere txitoak jateari beldur handia dio eta, otsoa, egoera honen aurrean aprobeztatu egiten da, gezurrak esanez eta txitosk jaten. Azkenean, zozoak lezio bat ematen dio hau berriro ez egiteko.
42	Beste bat nahi dut!	Familiaren garrantzia.	+ 5 urte	Otto beti kexaka ari da edozein dela arrazoia. Hala ere, bere familia Otto zoriontsu izatea saiatzen dira.
43	Pu! Zu izan al zara, Martin?	Higiene ohiturak.	0-6 urte	Martin zikin higie ohiturekin lotura duten oso jarrera txarrak ditu. Gurasoek, hauek baztertzea saiatzen dira.
44	Nire aita errege	Aiten eta familiaren garrantzia.	+ 3 urte	Familiaren barruan aitek duten garrantzia transmititu nahi da eta era berean, familiak duen garrantzia ere azpimarratzen da: aita boterea hartzen duenean, ez bera ezta familia ere ez dira zoriontsu jada.
45	Martin zikin	Higiene ohiturak.	0-6 urte	Martin zikin higie ohiturekin lotura duten oso jarrera txarrak ditu. Gurasoek, hauek baztertzea saiatzen dira ondorioak erakutsiz.

46	Ez da erraza katagorri	Heriotza.	+ 3 urte	Ama hil eta gero, katagorrik bere falta sumatzen du. Aitaren eta lagunen esfortzuari esker, katagorria egoerari aurre egiten eta onartzen joango da.
47	Neu naiz indartsuena	Botere abusua.	+ 6 urte	Otsoak basoko animalien artean erregea dela pentsatzen du eta besteei beldur ematen diela aprobetxatuz, indartsuena nor den galdetzen joaten da. Azkenean, handiagoa den norbait topatzen duenean, ikaratu egiten da.
48	Kili txikia	Botere abusua. Gudak.	+ 6 urte	Errealtatean gertatzen diren egoerak transmititu nahi dira, zehazki, botere abusua. Erregea herrian legeak eta debekuak jartzen hasten da, ondorioz gudak sortuz. Herriko animaliek horrekin amaitzea erabakitzen dute.
49	Sagutxoaren misterioa	Inozentzia.	+ 4 urte	Liburu honen bidez, umeek txikitatik daukaten inozentzia transmititu nahi da sagu txikiaren istorioa kontatuz.
50	Batzuetan atsegin dut bil-bil eginda egotea	Loa.	+ 6 urte	Wombati gustatzen zaizkion gauzak kontatzen ditu ipuin honetan, modu labur batean. Hala ere, Wombati gehien gustatzen zaiona lo egitea da.
51	Adiskidetze magikoa	Adiskidetasuna.	+4 urte	Adabakarra eta dragoia oso lagun egingo dira, bakoitzaren espeziaren bakarra direla konturatzen direnean. Era berean, bakoitzak duen sekretua elkarri kontatuko diote.
52	Luze iragarritako eguna	Elkarlana. Haurren garrantzia.	+4 urte	Ipuin honetan, haurren eta helduen bi mundu ezberdinak ageri dira. Haurrek, egoera ikusita, guztion artean helduok ere bere munduan bizitzea lortu nahi dute, berriro ere, haurrak izateko.
53	Bonobo betaurrekodunen egiazko historia	Sexuen arteko berdintasuna.	+ 3 urte	Ipuin honen bidez, autoreak sexuen arteko berdintasuna aldarrikatu nahi du, tximino emeak eta arrak protagonistak izanik. Emeak, lan eta lan egiten nazkatuta, beste bizimodu bat izatea erabakitzen dute.
54	Marraztuidazu gutun bat	Gaixotasun fisikoa.	+ 6 urte	Ainhoaren ama bidaia luze batera doala esaten dio bere alabari, bitartean, Ainhoak gutunak marrazten dizkio ama berataz oroitzeko. Amaieran, ikus daiteke nola ama ez dela bidaian egon, baizik eta ospitalean, ebakuntza bat dela eta.
55	Baina Boris!	Higiene ohiturak.	+ 3 urte	Boris ez du gogoko hortzak garbitzea. Egun batean, hortzik gabe geratzen dela amets egiten du eta geroztik, egunero garbitzen ditu hortzak.
56	Bost sagu bihurri musika jotzen	Adiskidetasuna.	3- 6 urte	Igelen kontzertu batera sartu eta gero, bost saguek musika talde bat sortzea erabakitzen dute, musika jotzea gehien gustatzen zaiona baita. Era berean, musika medio izanik, igelen eta saguen arteko adiskidetasuna hasiko da.

57	Nola sentitzen zara?	Emozioak eta sentimenduak.	0-3 urte	Modu arin batean, gizakiok bizi ahal izan ditugun emozioak eta sentimenduak adierazten dira, ilustrazioz lagunduta.
58	Osteratxo bat parkean	Adiskidetasuna.	+ 2 urte	Bi familia ezberdinetako txakurrek eta seme-alabek elkar ezagutu eta parkean elkarrekin jolasten dute, poz pozik. Lagun handiak egiten dira.
59	Mattin eta bere arrebatxo txikia	Zaintza jarrerak.	+ 2 urte	Liburu honek neba arrebak zaintzeko jarrerak transmititzea du helburu, ume txikiekin eginbeharrekoa azalduz.
60	Salimarentzat oparia	Emigrazioa. Kulturartekotasuna.	+ 4 urte	Salima Marokotik etorri berria da eta gabon gauan, olentzerok oparirik ez diola utziko uste du. Salimak EH-ko ohitura atsegin du eta azkenean, Olentzerok ere opariak ekarri dizkio.
61	Bat denontzat eta denak batentzat	Gaixotasun fisikoa/psikikoa. Elkarlana. Laguntza jarrerak.	0-6 urte	Meliton arratoia ibiltzeko zailtasunak ditu baina, hala ere, bidaia bat egitera abiatzen da. Bidaiatik, zailtasun anitzak dituzten animaliak topatzen ditu eta guztion artean laguntzen dute elkar haien helburua lortzeko.
62	Bakea dut izena	Gudak.	+ 3 urte	Bakea deituriko neska batek bere herrialdeak bizi duen guda kontatzen du, ume baten ikuspegitik eta modu arin batean.
63	Maddi eta txistua	EH-ko ohiturak eta festak.	+ 2 urte	Maddi bizi den herriko festak dira. Maddik danbolinak eta txistuak ikusterakoan bat erostea erabakitzen du, musikagatik pasioa sortuz.
64	Txerritxo	Besteengatik egin behar ditugun gauzak. Enpatia.	+ 6 urte	Txerri bat bere familia lokatza kentzen dioenean etxetik alde egiten du. Familiak txerria aurkitzen du eta txerriari bere lokatza bueltatzen diote.
65	Sagu andderea	Maitasuna.	0-6 urte	Sagu andere batek animalia ezberdinak ezagutzen ditu, baina azkenean bera bezalako sagu batekin ezkontzea erabakitzen du.
66	Amets gaizto nire armairuan	Beldurra eta honen gainditzea.	+ 4 urte	Ume batek beldur ikaragarria sentitzen du gauero, armairuan dagoen munstroa dela eta. Beldurra gainditu nahian, munstroa ezagutu eta beldur hau gainditzen du.
67	Marilitzar eta hiru hartzak	Barkamena eta bizikidetzara arauak.	+ 6 urte	Marilitzar hartzen etxean sartu egiten da eta dena hankaz gora jartzen du. Hartzak, konturatzen direnean, haserretzen dira eta bizikidetasun arauak gogoratzen dizkiote Marilitzarri.
68	Sekulako oparia	Gauza txikien garrantzia. Apaltasuna.	+ 2 urte	Luisi bere urtebetetzerako hartz bat oparitu diote baina hain handia izanda arazo asko dakartza. Azkenean, Julenen hartz txikiarekin bueltatzen da basora.

6. ONDORIOAK

Azken atal honetan gradu amaierako lan honen ondorio nagusiak zehaztuko dira. Alde batetik, hasiera batean lan honekin lortu nahi izandako helburuak bete diren ala ez hausnartuko da; betiere, marko teorikoa eta egindako ikerketak oinarri hartuta. Era berean, helburuetatik at eta egindako ikerketetan oinarrituta atera diren ondorioak ere zehaztuko dira.

Hasteko, esan beharra dago finkatutako lau helburuak bete direla. Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da marko teorikoaren bidez haur literaturara eta haur liburutegietara hurbiltzeko aukera ahalbidetu dela, kontzeptu hauen inguruko definizioetan murgilduz eta hainbat alderdietan sakonduz. Horretarako, bai haur literaturan sakontzeko baita haur liburutegiei buruz gehiago ikasteko hainbat adituen esanetan oinarritua izan da. Modu honetan, ondorioztatu daiteke, haur literaturari dagokionez denek bat egiten dutela *haur literaturak haur hezkuntzan berebiziko garrantzia duela* adierazterakoan; izan ere, umeen gozamenerako eta atsegin sentiarazteko egina dagoen testu multzoa da. (Etxaniz, 1996), (Cervera, 1989), (Grissolle, 1991) eta (Cerrillo, 2001). Era berean, *haur liburutegiei* dagokionez, guztiek bat datozte *haur hezkuntzan ezinbestekoa den gunea edota tresna* dela aitortzerakoan, hezitzearen, informatzearen eta sozializatzearen lana egiten baitu. (Osoro, 2006), (Jiménez Martínez, 2012), (Hezkuntza Zientzia Ministerioa, 1995) eta (Chaos Lloret, 2006).

Bigarrenik, haur literaturaren barruan tabuak diren gaietara hurbiltzea posiblea izan da. Alde batetik, marko teorikoa erraminta nagusia izanik, gai honen kontzeptu teorikoenak (Pérez, 2010) barneratu ahal izan dira; ondorioztatuz, *gai tabuak gizartean ondo ikusita ez dauden gaiak direla* eta hauei buruz hitz egiterako orduan trabak izan ohi ditugula. Era berean, gai tabuak haur literaturara bideratuz, ondorioztatu dezakegu *umeen irakurzaletasuna pizteko, ezinbestekoa dela gai berritzaileak eta egungo gaiak jorratzea* (Mora, 2007). Halaber, jaiotzetik umeak kuriosoak izan ohi dira, hortaz, gai guztien inguruan jakin nahi izaten dute, hauek positiboak ala negatiboak izan (Arnal, 2011). Hori oinarri hartuta, haur literaturan *gai hauek agertzea garrantzia handia duela ondorioztatu* da, hortaz, ikerketak gai tabuen eremura bideratzea erabaki da.

Beste alde batetik, gai tabuen inguruan gehiago murgiltzeko, haur literaturaren arloan adituak diren hainbat pertsoneri egindako elkarrizketak egin dira, atal enpirikoa sortzeko aukera eskainiz. Modu honetan, teoriarekin informazioa alderatzeko aukera ahalbidetu da eta hainbat ondorio izan dira nagusi. Lehenik eta behin, agerian geratu da *gai tabuak haur literaturan agertzea ezinbestekoa* dela; izan ere, *gai hauen ezagutzan laguntzen du*, beste ikuspegi naturalago eta erakargarriago bat eskainiz, horrela, gaiak

normaltasun handiagoz hartuz. Bigarrenik, ondorioztatu daiteke nola duela urte batzuetako aldearekin konparatuz, *gai tabuak haur literaturan gehiago tratatzen direla*, batzuetan, literatura berari baino garrantzia handiago emanez. Era berean, ikusi ahal izan da nola *gai tabuak apurtu nahian haur literaturan gai anitzak landu daitezkeela*: heriotza, gaixotasunak, suizidioak, sexua, familia eredu berriak, kulturartekotasuna edota haur transexualitatea. Halaber, ondorioztatu daiteke nola nahiz eta gaur egungo gizarteak *gai tabuei aurre egiteko* prestatuta egon beharko litzatekeen, askotan, ez *ditugula erramintak edota baliabideak bilatzen* edota izaten. Hortaz, *ikusiak izateko hainbat proposamen agerian geratu* direla esan daiteke; hala nola, gaiak samurtasunez eta umorez tratatzea, autoreek modu natural batean istorioa kontatzea, pertsonaiak nahiz istorioa erreala izatea edota hartzailea protagonistarekin identifikatuta sentitzea.

Elkarrizketetako ondorioetatik abiatuz, haur liburutegi batean behaketa bat egiteko aukera eman da, haur literaturan gai tabuak duten ikusgarritasunaren berri izateko. Aurrera eraman ahal izateko, adituek adierazitako hainbat gai oinarritzat hartuak izan dira. Ausaz aukeratutako 150ko lagina oinarri hartuta, gai tabuak tratatzen duten liburuak hausnartu egin dira, ondorioztatuz, hauek *lantzen dituzten liburuak oso gutxi* direla, zehazki 29 liburu, honako hauek izanda gai bakoitzaren ehunekoak: Bullying-a % 3.3k lantzen dute; familia eredu berriak %6k; gaixotasunak %3.3k; heriotza %3.3k; eta kulturartekotasuna %3.3k. Era berean, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan lantzeko aukera ematen dituzten liburuak ere, lehenengo zikloan lantzeko baino gehiago dira; izan ere, behatutako *liburuetatik lehenengo zikloan lantzeko aukera ematen dituztenak soilik 4 dira, hau da, %13.7*. Behaketaren ondorioekin bukatzearen, aipatu beharra dago *%38k animaliak protagonista* bezala erabiltzen dituztela istorioa kontatzeko, aldiz, *%62k pertsonak edota umeak* protagonista bezala erabiltzen dituzten bitartean. Honen ildotik jarraituz, esan beharra dago ateratako emaitzekin triptikoak burutzeko aukera aurrera eraman dela, informazioa era deigarri eta aberasgarri batean islatzeko eta datu garrantzitsuenak islatuz.

Halaber, behaketa egiterako orduan 150ko liburuen inbentario bat sortu da, hainbat alderdien inguruan ondorioak ateratzeko aukera ere ahalbidetzen duena. Alde batetik, aipatu beharra dago inbentarioan agertzen diren liburuen *%39.3k lehenengo zikloan lantzekoak direla, aldiz, %60.7k bigarren zikloan lantzekoak* diren bitartean. Hortaz, esan daiteke, Gasteizko liburutegian bigarren ziklora bideratuta dauden liburuen presentzia handiagoa dela. Beste alde batetik, liburuetan *lantzen diren gaiei* begira, *%12k adiskidetasuna lantzen dute*, liburuen artean hau izanik gehien lantzen den gaia. Jarraian, *familien garrantzia* edota familia eredu berriak lantzen duten liburuen kopurua da nagusia, *%10.6k lantzen* baitute. Ondoren, *fantasiako edo abenturazko* gaiak

egongo lirateke, %10ek lantzen duten gaia baita. Hortaz, esan daiteke, hautatuko laginatik hainbat direla tratatzen diren gaiak, hau oso aberasgarria izanik umeein lantzerako orduan.

Ondorioekin amaitzearren, aipatu beharra dago marko teorikoa lan osoan zehar erabilitako tresna aberatsa izan dela, ekarpen teorikoak ez ezik, atal enpirikoa sortzeko aukera eskaini duelako; ondorioz, gai tabuak egun duten ikusgarritasuna behatzeko tresna sortuz eta etorkizunean hau aldatzearen beharra dagoela ziurtatuz.

Azkenik, hobetze alderdiei begira, aipatu beharra dago interesgarria izango litzatekela behatutako gai tabuen liburuak Haur Hezkuntzako gela batean dauden liburuengatik ordezkatzeari, liburu hauek umeein batera hausnartu ahal izateko eta gai tabuak normalizat hartzen joateko.

7. BIBLIOGRAFIA

(2017). *Significado de Tabú*. <https://www.significados.com/tabu/> - tik berreskuratuta. [2017ko abenduak 29].

Arnal, T. (2011). El tratamiento de la muerte en el álbum infantil. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Añorga, P. (2011). Haur- Literatura eta ahozketasuna. *Behinola* 24, 21-28 orr.

Carmenza, M. (2015). La literatura infantil y sus beneficios en el desarrollo del pensamiento y del lenguaje. *Katharsis* 19, 82-84 orr.

Cerrilo, P. (2001). In Carmenza, M. (2015). La literatura infantil y sus beneficios en el desarrollo del pensamiento y del lenguaje. *Katharsis* 19, 81 orr.

Cervera, J. (1989). En torno a la literatura infantil. CAUCE, *Revista de Filología y su Didáctica* 12, 157-168 orr.

Chaos Lloret, C. (2006). Haur liburutegiak, Askatasungune. *Behinola* 14, 34-42 orr.

Colomer, T. (2010). Funciones de la literatura juvenil e infantil. In *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Editorial Síntesis.

Eliecer, J. (2014). *La lectura una herramienta pedagógica en el aprendizaje de la célula como unidad estructural de los seres vivos*. Colombiako Nazio Unibertsitatea.

Etxaniz, X. (1996). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: Ehu.

Ferland, F. (2011). ¿Por qué es bueno contar historias y cuentos a los niños?. In *Cuéntame un cuento*. Madril: Narcea.

Fernández, P. (2016). *Hizkuntza idatziaren didaktika, 2016-2017 ikasturteko Haur Hezkuntza Gradu 3. mailako apunteak*, editatu gabeak. Gasteiz: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.

Fons, M. (2004). El papel del maestro o la maestra. In *Leer y escribir para vivir*. (45-59 orr.) Barcelona: Graó.

Grissolle, J. (1991). In Carmenza, M. (2015). La literatura infantil y sus beneficios en el desarrollo del pensamiento y del lenguaje. *Katharsis* 19, 81 orr.

González, C. (2000). Estrategias y procedimientos para fomentar la lectura en la familia y en la escuela. *Lenguaje y textos* 15, 71-80 orr.

Hezkuntza Zientzia Ministerioa. (1995). *La biblioteca escolar en el contexto de la Reforma Educativa*. Madrid: HZM.
http://www.ite.educacion.es/formacion/materiales/8/cd_2013/m1_2/objetivos_y_funciones_de_la_biblioteca_escolar.html - tik berreskuratuta. [2017ko abenduak 27].

Jiménez Martínez, L. (2012). La animación a la lectura en las bibliotecas... La construcción de un camino hacia la lectura. *Boletín de la asociación andaluza de bibliotecarios* 103, 59-78 orr.

Jiménez Rodríguez, S. (2010). La biblioteca de aula en Educación Infantil. *Publicaciones Didácticas* 7, 181-185 orr.

Mora, L. (2007). Cómo formar una buena colección literaria. *Idea la Mancha: Revista de Educación de Castilla-La Mancha* 5, 249-253 orr.

Moreno, V. (2009). *Literatura para ser leída, imitada y transformada*. In Hizkuntza eta literaturaren irakaskuntza eta ikaskuntza. Rojo et. Al (Koord) EHU. 13-29. Orr.

López, M. (1992). Haur literatura eta gizartea. In UEUren literatura saila. *Haur literaturaren inguruan*, (67-71 orr.). Bilbo: Udako euskal unibertsitatea.

Osoro, K. (2006). Biblioteca escolar y hábito lector. *Educación y Futuro: revista de investigación aplicada y experiencias educativas* 2, 53-67 orr.

Pérez, J. (2010). *Definición de tabú*. <https://definicion.de/tabu/> - tik berreskuratuta. [2017ko abenduak 29].

Puente, A. (1996). Cómo formar buenos lectores. In Pedro C. eta Jaime G. (koord.). *Hábitos lectores y animación a la lectura*. (21-69 orr.). Cuenca: Gaztela eta Mantxako Unibertsitatea.

Rodríguez, M. (1996). Animación a la lectura. In P. Cerrillo eta Jaime G. (Koord), *Hábitos lectores y animación a la lectura*. (111-117 orr). Cuenca: Gaztela eta Mantxako Unibertsitatea.

Rumelhart, D. E. (1977). Toward an Interactive Model of Reading. In S. Dornie (koord.) *Attention and performance VI Hillsdale*, 573-603 orr.

Solé, I. (1992). El reto de la lectura. *Estrategias de lectura*. (21-141 orr.). Bartzelona: Graó.

Uraga, J. (2015). Gaur egungo eskola-liburutegiaren errealitate ezberdinak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

8. ERANSKINAK

1. Eranskina: Gai tabuen elkarrizketaren txantiloia.

Gai tabuen elkarrizketa
1. Zer ulertzen duzu gai tabu bezala?
2. Gai tabuekin inolako esperientziarik edota ekarpenik izan dituzu? Nola bizi izan zenuen? Zer sentrazio izan zenituen?
3. Gai tabuen inguruko istorioren edo libururen batek ukitu zaitu bereziki? Zergatik?
4. Haur literaturan gai tabuak azaltzea beharrezkoa dela uste duzu? Zergatik?
5. Uste duzu gaur egun behar den garrantzia ematen zaiela gai tabuei haur literaturan?
6. Gai tabuen inguruan beharrezkoa den informazioa dagoela uste duzu?
7. Zer gai ikusten dituzu garrantzitsuak edota beharrezkoak haur literaturaren bidez lantzeko?
8. Egungo gizarteak, hala nola, familiak edota eskolak, haur literaturan gai tabuei erantzuteko edo aurre egiteko prest daudela uste duzu?
9. Uste duzu haur literaturak gai tabuei aurre egiteko edo gai hauen ezagutzan laguntzen duela? Zergatik?
10. Literaturan, gai tabuak ikusiak izateko, zer egingo zenuke? Zer tresna edo modu erabiliko zenituzke?
11. Haur literaturan zer nolako pertsonaiak, egoerak, gaiak edota jarrerak proposatuko zenituzke gai hauek lantzeko?

2. Eranskina: Behaketa txantiloia.

Behaketa fitxa			
Gasteizko Ignacio Aldeko kultura etxea			
Izenburua	Gaia	Adina	Gaiaren deskripzioa

3. Eranskina: Gai tabuen elkarrizketen emaitzak.

1. Zer ulertzen duzu gai tabu bezala?
<p>MV: Niretzako ez daude gai tabuak. Niretzako garrantzitsua da istorioa nola kontatzen duzun, nola tratatzen duzun eta gaiari ze nolako ikuspegia ematen diozun. Betiere, tratatzen dituzun gai guztiak errespetutik tratatuak izan behar dira. Era berean, norberak gai tabu batzuk izaten ditu, adibidez, niretzako gai tabuak direnak beste pertsona batentzako agian ez dira gai tabuak izango. Nire kasuan, gai tabua izango litzateke, liburu bidez gorrotoa edota mesprezua transmititzea; sexua, arraza edo etnia ezberdineko pertsonak direlako.</p>
<p>TA: Nik tabu hitza ez dut erabiltzen pentsatzen dudalako gai taburik ez daudela. Tabuak guk geuk sortzen ditugu gai bati aurre egiten ez diogunean. Adibidez, heriotza ez da gai tabua, izan ere, unibertsala eta askotan naturala da, guztioi gertatzen zaiguna. Hala ere, heriotza tapatzen dugu, hau da, guk bihurtzen dugu gaia tabu. Eta heriotza gaiarekin bezala, beste gaiekin ere gertatzen da, guk bihurtzen ditugu tabu gai bati aurre egiten ez diogunean. Horregatik, gai tabuak erabili beharrean, gai deserosoak bezala definituko nituzke.</p>
<p>ML: Gai tabua, sozialki deserosoa eta aipatzen ez dena edo hitz egiten ez den gai bat da. Haur literaturan, gai tabuak daudela esan dezakegu, oso gutxi tratatzen diren gaiak daudelako; tabuak direlako edo hauek lantzeko interesik ez dagoelako.</p>
<p>MM: Gai tabuak sozialki ondo ikusia ez dagoen eta gizarteak saihesten duen gai bat da. Gai hauek izaera erlijioso, politikoa, etikoa etab. izan dezaketela uste dugu.</p>
<p>XO: Badaude gure gizartean onartuak edo gaizki ikusiak dauden jokaerak edo isilean gorde beharreko gaiak, edo ezkutatu beharreko pentsamoldeak, edo isilarazi behar diren hitzak edo esamoldeak, edo...; honengatik edo harengatik, "gai delikatuak", nolabait esateko. Horiek dira tabuak, batzuetan pertsonok ditugun prejuizioekin dute zerikusi zuzena.</p>

2. Gai tabuekin inolako esperientziak edota ekarpenak izan dituzu? Nola bizi izan zenuen? Zer sentazio izan zenituen?
<p>MV: Esperientzia pertsonalak ez ditut izan, izan ere, haur literaturan lan egiten dudanetik, askatasun handiarekin lan egiteko aukera izan dut. Hala ere, anekdota txikiak izan ditut gai tabuen inguruan. Adibidez, ume bat nik idatzitako liburu bat ez zuen erosi bertan agertzen zenagatik. Liburuan bihotz bat agertzen zen bi mutilen izenekin. Gainera, gurasoek ere ez zuten liburu erosi nahi izan agertzen zenagatik. Hala ere, horrelako kasuak oso gutxi bizi izan ditut, eta oso pertsona gutxi dira horrelako jarrerak izaten dituztenak.</p>
<p>TA: Bai. Heriotzarekin jakina esperientziak izan ditudala, senide maitatuak hil egin zaizkidalako. Gaixotasunekin ere esperientziak izan ditut, gertuko jendearen gaixotasunak bizi</p>

izan ohi ditut. Gero, drogarekin ere esperientziak eduki ditudala esan daiteke, lagunak hildu zaizkit droga jota.

ML: Modu pertsonalean, ez ditut esperientzia edota ekarpenik izan gai tabuak kontsideratzen diren gaiekin.

MM: Modu pertsonalean ez ditugu gai tabuekin inolako esperientziarik izan.

XO: Bai, izan dut esperientziarik. Behin, Gasteizko Txagorritxuko ospitaleko irakaslea ezagutu nuen. Ospitalean bada gaixo dauden haurrek eskolarik ez galtzeko ikasgela bat. Irakasle hark zera esan zidan, heriotza oso gertu zuela bere ofizioan, noizik behin haurren bat do beste hiltzen baitzitaion. Gaixotasunak ere bertan zituen, ugari, ikasle gaixoak tarteko zirela. Irakasle hark hainbat liburuxka idatzita eta argitara emanda zituen, gaixotasunak eta heriotza haurrei modu egokian azaltzeko. Inpaktu handia egin zidan bere esperientziak. Irakaskuntzaren beste ikuspegia zen berea, laztasunaren ikuspegia.

3. Gai tabuen inguruko istorioen edo libururen bat ukitu zaitu bereziki?

Zergatik?

MV: Bai, irakurri ditudan istorioen artean asko izan dira gai tabuen inguruan bereziki gustatu zaizkidanak. Adibidez, asko gustatzen zait heriotza nola tratatzen den “Mi vida es un cuento” liburuan. Oso liburu polita da, samurtasun handiarekin eta oso egokia. Ukitu nauen beste istorio bat “Matilda” izango litzateke. Asko gustatzen zait gaia nola tratatzen den, nola egiten duen idazleak, izan ere, gaia tratatzen du irakurlea entretenitu ahala. Idatzi edo ilustratu ditudanen artean, ez dut oroitzapen berezirik baina esandako istorioetatik eta irakurri ditudan istorioetatik ikasten saiatzen naiz.

TA: Bai. Nire tesia egiteko, obra asko irakurri behar izan nituen, heriotza gaia tratatzen zutena eta bai, asko izan dira gustatu eta hunkitu zitzaizkidanak: “Como es posible la historia de Elvis”, “Regaliz”, “Gajos de Naranja”, “La caricia de la mariposa”. Gero, sida eta drogaren gaia tratatzen duten istorioak ere hunkitu didate, adibidez, “Miss Txatarra”. Guda lantzen duen “Muletas” liburua ere asko gustatu zitzaidan. Bestetik, “Basoak badu sekretu bat” izeneko albumean, ezberdinen arteko maitasuna oso ondo lantzen du eta asko gustatzen zait ere. Laburbilduz, nik uste dut gai guztien inguruan ona den libururen bat dagoela.

ML: Bereziki gustatu zitzaidan liburua “Nahiago nuke mutila banintz” da, oso ondo tratatzen duelako sexualitate gaia. Gaur egungo ikuspuntutik gai sinplea da baina lehen, gai tabua kontsideratzen zen eta liburu honek gaia oso ondo eta naturaltasunez tratatzen duela uste dut.

MM: Bai, “Un dia diferente para el señor Amos” bereziki gustatu zitzaigun. Liburu honek zahartzaroan bizi izan diren gaixotasunak tratatzen ditu modu egoki batean.

XO: Mariasun Landaren “Txan fantasma” liburua ederra iruditu zitzaidan irakurri nuenean, hotzepel uzten ez zaituen horietakoa. Umezurtz geratu den Karmenxuren istorioa kontatzen

digu. Tematika psikologikoa hartzen du idazleak, maitasun eza eta bakardadea, besteak beste. Txan fantasma Karmentxuren konplizea izango da. Gai hori, beraz, txori eta lore politak agertzen direneko ipuinetatik urrun gelditzen da. Gai tabuak diren heriotza edo sexua gaitzat hartzen dituen beste liburu gogoangarri batzuk ere baditu Mariasun Landak.

“Maitasun sua” liburua, Aitor Aranarena, homosexualitatearen gaia agertzen du.

“Nicolas tiene dos papás” eskolaurreko ikasleei zuzenduriko ipuina da. Izenburuak argi adierazten duenez, familia monoparental batean bizi eta hazi den haur baten istorioa da. Liburu hori ere aipagarria da nire ustez, bestelako familia-moldea agertzen duelako.

4. Haur literaturan gai tabuak azaltzea beharrezkoak direla uste duzu?

Zergatik?

MV: Era egokian egiten bada, bai. Ezinbestekoa da gaiak askatasunarekin lantzea, errespetutik, naturaltasunarekin eta ilusioarekin. Aldiz, gai hauek lantzea gizartean espazio bat bete behar delako edo moralki ondo dagoelako izugarritzko akatsa dela uste dut. Halaber, horrelako gai bat idazterakoan irakurlearen enpatia bilatzen da eta hauek idazteko, autoreek izaera eta distantzia bat eduki behar dute istorioarekiko. Hala ere, autore bakoitzak ikusi behar du gaia nola landu nahi duen eta irakurlea nola liluratu nahi duen.

TA: Azaltzea ez baina agertzea bai, oso ideia ezberdinak baitira. Azalpenak guk eman behar ditugu, gurasoak, irakasleak... literaturak ez du ezer ez azaldu behar, ez da haur literaturaren funtzio nagusia, bestela ez litzateke literatura izango baizik eta liburu dibulгатibo bat. Askotan egiten dena da, azalpen horiek mozorrotu formatu edo euskarri literario batean. Nik uste dut, errealitate hauek haur literaturan agertu behar direla baina azaldu beste kontu bat da.

ML: Uste dut, umeentzat ez daudela gai taburik, aurreiritziak ez baitituzte edo behintzat helduok bezain beste; gai tabuak helduogandik datoz. Orduan, haur literaturan edozein gai landu ahal dela uste dut, umeek naturaltasunez hartzen dutelako eta onurak ekar ditzake.

MM: Bai, gai tabu bat normalizatzea eta sozializatzea helburu duen produkzio oro ongi etorria da haur literaturan.

XO: Baiezkoan nago, garrantzitsua da gai tabuak (heriotza, sexua, droga, suizidioa ...) ere azaltzea eta mahaigaineratzea. Ez da inolaz ere komeni errealitatea edulkoratzea eta faltsutzea, ezkutatuta eta estalita edukitzeko. Umeak babestu nahian, kontrakoa lortzen dugu DIBERTSIDADEA, aniztasuna, alegia, agertu beharra dago. Ipuina tresna egokia izan daiteke hori guztia lantzeko. Beraz, Haur eta gazte literaturak ere beregain har ditzake gai horien guztien lanketa, hori bai, naturaltasunez baina esku onez. Baina zein zaila den hori! Oso inportantea da, bestalde, irakurketa-mota hori NOIZ egin behar den, zein momentutan, zein adinetan eta zein eratan egitea. Horra hor koxka. Hori da benetako erronka.

5. Uste duzu gaur egun behar den garrantzia ematen zaiela gai tabuei haur literaturan?

MV: Bai. Nik uste dut gai tabuak tratatzen direla haur literaturan. Hala ere, egungo teknologiak direla eta, literatura bigarren plano batean geratzen da eta autoreentzat ere zaila izaten da gai hauek tratatzea modu egoki batean irakurleari helarazteko eta liluratzeko.

TA: Batzuetan gai deseroso bat modan dagoenean bai, egiten da baina berehala ahaztu egiten da. Nik uste dut garrantzia eman behar zaiola literatura onari eta gero, literatura hori beste balore edo gai batzuk lantzen baditu, primeran. Kontraesanak baditut, izan ere, haur literaturan gai horiek agertu behar direla uste dut, baina nola? Normalizatu nahi badugu, era natural batean agertu behar dira.

ML: Nik uste dut baietz. Gaur egun joera dago haur literaturaren bidez balioak transmititzea eta literatura egitea bigarren maila batean geratu da, zoritxarrez. Hortaz, uste dut gai hauei garrantzia ematen zaiela, lantzen diren balioen barruan ere egon daitekeelako tabua kontsideratzen den gairen bat.

MM: Bai, gaur egun literaturaren bidez gai asko tratatzen baitira.

XO: Behar den garrantzia ez, ziur aski. Hala ere, duela urte batzuetako literaturarekin alderatuta, honetan ere aurrerapausorik eman da, zalantzarik gabe. Gaur egun bila daitezke urte askoan aipaezinak izan diren gai tabuen inguruko liburu-izenbururik. Gizartea zenbat eta irekiagoa izan, orduan eta naturalagoa izango da gai tabu horiek guztiak naturaltasunez agertzea. Baina, oraindik ere, badira gizartean sektore erreakzionarioak aurrerapausorik emateko prest ez daudenak.

6. Gai tabuen inguruan beharrezkoa den informazioa dagoela uste duzu?

MV: Bai, nik uste dut literatura munduan nahiko presente dagoela. Hala ere, nik uste dut literatura istorio bat kontatzeko eta transmititzeko erraminta bat dela, eta, ez gai horien inguruan informazioa emateko erraminta bakarra. Laguntzen du gai horien ezagutzan baina ez da izan behar informazio iturri nagusia.

TA: Hezkuntzaren munduan, adibidez, baliabide faltan gaudela pentsatzen dut. Gaien inguruan badakigu, baina gero, ez dakigu nola irakatsi edo nola aurre egin. Unibertsitatean matematika didaktika, literatura didaktika etab. badaukagu, zergatik ez sexuaren didaktika edo heriotzaren didaktika? Gai horien inguruan oso material gutxi daudelako.

ML: Gaur egungo gizartean zerbait falta ez bada informazioa da. Informazioa soberan dago gai guztien inguruan eta nahi duenarentzat, informazioaren gizartean bizi baikara. Hortaz, bai, gai tabuen inguruan beharrezkoa den informazio dagoela uste dut.

MM: Bai, gai tabu guztien inguruan informazio asko dagoela uste dugu.

XO: Orokorrean behar adina ez dagoela uste dut. Hala ere, gaur egun jendea jantziago dago eta informazio gehiago bila daiteke han-hemen. Era berean, belaunaldi berriak jantziago daude aurrekoekin alderatuz eta eskolan ere gai batzuk landu egiten dira.

7. Zer gai ikusten dituzu garrantzitsuak edota beharrezkoak haur literaturaren bidez lantzeko?

MV: Uste dut, haur literaturan gai guztiak direla garrantzitsuak lantzeko. Hala ere, literaturaren historian zehar, gai tabu anitz tratatu dira, ez da gaur egungo istorioen bidez tratatu den gauza bat. Adibidez bullyinga, homosexualitatea, emigrazioa edo tratu txarrak landu izan dira literaturaren bidez. Gaur egun, transexualitatea tratatzea ondo deritzot, ez delako tratatu eta garrantzitsua ikusten dut. Gainera, gai tabu “ofizial” aparte, gai asko izan dira haur literaturaren bidez tratatuak izan ez direnak eta beharrezkoak direnak: Kirolak etab. Hortaz, tratatuak izan ez diren gaiak landuko nituzke eta modan ez daudenak.

TA: Nik uste dut gaur egungo haur literaturan presentzia eskasa daukatela, adibidez, elbarritasun psikikoek, suizidioak, gaixotasun fisikoak edota sexua. Gai hauek oso gutxi lantzen direla uste dut eta lantzea beharrezkoa da, izan ere, gai hauek naturalak dira eta umeak halako gai baten aurrean dagoenean, inork ez badio ezer ez azaldu, arraro sentitzen da. Aldiz, aurre esperientzia bat baldin baditu, adibidez literaturaren bidez, eta loturak egiten baditu, identifikatuta sentituko da eta jada ez da hain arraro sentituko.

ML: Lantzeko beharrezkoak diren gairik ez dut ikusten. Arloko ikertzaile moduan beti esan dut, haur literaturan fantasiaren arloko gaiak falta direla. Gai tabuen barruan, aldiz, ez dut uste lantzeko falta diren gaiak daudela, izan ere, adibidez, “Eta zer” bilduma dago, non gai “tabu” asko tratatzen diren eta oso ondo dagoen.

MM: Uste dugu haur literaturan bereziki haur gaixotasunak eta haur heriotza lantzen duten liburu gehiago behar direla.

XO: Edozein dela ere jorra dezakeela uste dut, anitza izan behar du gaitegian, hori bai, balizko irakurleari ondo-ondo egokitua. Baloreak lan daitezke haur eta gazte literaturaz, baina baita gerra, gaixotasuna edo heriotza ere... Umeak gizaki pentsamendudunak dira, eta gauza dira egunerokotasunaren zailtasunak ulertzeko eta gorabeherez jabetzeko. Horrexegatik beragatik irakurketaren bidez familia-egitura ezberdinen gaia lan daiteke, edo gai kultural hutsak, edo errespetoa eta berdintasuna bezalako gaiak sustatu...

8. Egungo gizarteak, hala nola, familiak edota eskolak, haur literaturan gai tabuei erantzuteko edo aurre egiteko prest daudela uste duzu?

MV: Bai. Uste dut gai hauei aurre egiteko prest daudela eta bestela, gai hauek lantzeko erramintak bilatu beharko dituzte. Uste dut, historian zehar, gizarteak asko aurreratu duela eta

<p>hori lortu da gauza txikiekin. Hortaz, gai hauek lantzeko erramintak eskaini ahal dira, noski, baina beste batzuk familiak edota eskolak bilatu beharko dituzte.</p>
<p>TA: Eskolen kasuan, ezberdinduko nuke publikoan eta pribatuan, ezberdintasunak anitzak direlako. Pribatuan, elizaren menpe daude, hortaz, gai hauei ez diete aurre egiten ezta azaldu ere, ideologikoki ez zaielako interesatzen. Bestetik, eskola publikoaren eta familiaren kasuan, uste dut, baliabide edo informazio faltan daudela eta nahiz eta gai horiei aurre egin nahi duten, ez dakite nola egin.</p>
<p>ML: Ba, ez dakit prestatu dauden. Eskolaren kasuan, prestatuta egon beharko litzateke, eskolaren zeregina baita. Familian, aldiz, gai tabuei erantzutea edo aurre egitea zailagoa dela uste dut, familia nolako den kontuan izan behar dugu, izan ere, familiaren arabera gai batzuk oraindik ez dira hitz egiten.</p>
<p>MM: Informazioa eta baliabideak badaudela uste dugu, baina ez dakigu material horiek ze puntutaraino eskoletara eta familietara ailegatzen diren edota haiei buruz informatzen diren gai tabuei aurre egin ahal izateko.</p>
<p>XO: Orokorrean ezetz esango nuke. Badira gai batzuk inongo arlotan jorratzen ez direnak, transexualitatea, adibidez; edo bisexualitatea, edo suizidioa... Batzuetan, kontu bitxiak ere gertatzen dira, honen harira. Adibidez, lehen aipaturiko “Nicolas tiene dos papas” kaleratu zutenean, “Acción Familia” izeneko talde kristauak, Txilekoa berau, sinadura-bilketan hasi ziren banaketaren kontra protesta egiteko. Hezkuntza ministeritzaren aurreran ere bilkurak egin zituzten hainbat egunetan. Eta errekursoak jarri zituzten liburuaren zabalkundea ez gelditzearren. Jakina taldearen helburua eta izaera oinarri eta funtsa kristauak zaintzea zen, kosta ahala kosta.</p>

9. Uste duzu haur literatura gai tabuei aurre egiteko edo gai hauen ezagutzan laguntzen duela? Zergatik?

<p>MV: Bai, gai hauek ikusiak izateko asko laguntzen du, gaiaren inguruko beste ikuspegi bat eskaintzen duelako eta gaia hedatzea ahalbidetzen duelako. Gainera, sostengu garrantzitsua dela uste dut, gaiak atseginagoak eta erakargarriagoak egiten dituelako. Hala ere, haur literatura ez da izan behar informazio iturri nagusia baina bai laguntzazko erraminta.</p>
<p>TA: Bai, laguntzen du. Azkenean haur literaturan gai bat agertzen bada, ikusia izaten laguntzen du eta gaiak naturaltasunez bizitzeko ere laguntzen du. Pentsatzen dut tratatu behar direla errespetu osoz eta modu literarioan.</p>
<p>ML: Bai, tabuak diren gaiak normaltzen diren aldetik bai laguntzen duela uste dut. Inoiz ez baduzu ezer ez entzun gai baten inguruan harritzen zara, aldiz, literaturaren bidez gai horien inguruan inolako harremana izan baduzu, normaltasun handiagoz hartzen duzu.</p>

MM: Noski, bai. Izan ere, gai tabu bat istorio batean islatuta ikustea asko laguntzen du, ilustrazioekin lagunduta doazelako eta umeen hizkuntzarekin bat datorrelako. Horrela, gai hauetara hurbiltzea laguntzen die.

XO: Bai, zalantzarik gabe. Literaturak lagun dezake haurrak gai tabu horretara hurbiltzen eta gai horrekiko kontzientzia hartzen; baita pertsona irekiak eta gogoetatsuak izaten ere. Jakin behar dute inguruaren laztasunak ere zertan diren eta guztia ez dela kolore arrosakoa. Horretan ere prestatu beharra daukagu haur hori.

10. Literaturan, gai tabuak ikusiak izateko, zer egingo zenuke? Zer tresna edo modu erabiliko zenituzke?

MV: Modu natural eta poetiko batean egitea saiatuko nintzen, horrela, irakurleari liluratzeko. Era berean, umorea edo samurtasuna erabiliko nituzke eta ilustrazioekin lagunduko nuke. Gako nagusia, nire ustez, gaiari aurre egitea da, hau den bezala kontatzea eta gaia ez mozzorrotzea.

TA: Gai tabuak ikusiak izateko, haur literaturaren barruan autoreak modu libre batean idaztea proposatuko nuke. Izan ere, askotan, autoreari gai horien inguruan idaztea esaten zaio, hutsuneak betetzeko eta hortaz, soilik helburu didaktikoak daudela esan dezakegu. Hau, haur literaturak gaur egun jasaten duen arrisku bat da.

ML: Haur literatura erabiltzen baduzu herritarrak formatzeko orduan, lehentasuna eman behar diezu horrelako gaiei. Aldiz, ez nago ados haur literatura horrelako formaziorako erabiltzea, literatura zerbait gehiago delako. Haur literaturaren bidez, gaiak ukitu ahal direla argi dago, baina ez guztiz azaltzeko eta jendea hezteko. Bestetik, uste dut, gai hauek ikusiak izateko nahikoa egiten dela eta hortaz, ez dela beharrezkoa ezer egitea. Izan ere, gaur egun, garrantzia handiago ematen zaio baloreak transmititzeari literatura bera lantzeari baino.

MM: Gure kasuan eta gure lanbidea dela eta, material eta baliabide hauek ezagutzeko eta ikusiak izateko arduratzen gara. Era berean, eskoletara ere ailegatzea saiatzen gara.

XO: Erakunde publikoek gai tabuak jorratzen dituzten liburuen izenburuen zerrendak egin beharko lituzkete eta ikastetxeetara zabaldu. Irakurketa hori sustatu egin beharko litzateke han-hemen, gai horiekiko kontzientzia sustatzeko. Gai tabua lantzen duen liburu bat irakurri eta gero, mahainguruak antolatuko nituzke ikasgeletan gaiaz jantzi eta iritziak trukatzeko. Jorragai den gai horrekiko esperientzia pertsonalak izandako jendea gonbidatuko nuke jardunaldi horietara.

11. Haur literaturan zer nolako pertsonaiak, egoerak, gaiak edota jarrerak proposatuko zenituzke gai hauek lantzeko?

MV: Pertsonaia errealak eta bizitzarekin proposatuko nituzke, sinesgarriak izatea. Era berean, istorio bat gertatzea eta hau transmititzea ezinbestekoa dela deritzot, irakurleak istorioa amaitzen duenean, zerbait ikasi duelaren eta esperientzia bat bizi duelaren sentsazioa edukitzeko. Beraz, era natural, sinesgarria eta benetakoa egingo nuke, egoerak, jarrerak eta pertsonaia errealekin.

TA: Pertsonaiei dagokionez, pentsatzen dut, protagonista edo pertsonaia nagusiak umeak izan behar direla, haiei zuzendutako obrak baitira eta identifikatuta sentitu behar dira. Euskal Herrian adibidez, faltan botatzen dut haur literaturaren obra bat non protagonista ume ijito, arabiarra edo beltzarana den, bai neska bai mutila. Izan ere, horrelako obrak ez daude, hortaz, hauek ez dira inoiz identifikatuta sentituko haur literaturarekin. Bestetik, edozein gai landuko nuke, naturalak direnak eta errespetuz eta naturaltasunez landuz. Azkenik, jarrerei eta ekintzei dagokionez, gustatuko litzaidake “berdintasuna” lantzea eta gizonak, emakumeei esleitzen zaizkion izaera eta lanbideak egiten, hala nola, erizainak edo haur hezkuntzako irakasleak izaten.

ML: Ideiarik ez. Ez dut inoiz planteatu. Nik uste dut gaiak ez direla planteatu behar da hutsune bat betetzeko, baizik eta autoreak horrela nahi duelako.

MM: Gaiei dagokionez, gaixotasunak, heriotza, generoen arteko ezberdintasunak, edota ezberdintasun fisikoak landuko genituzke.

XO: Orokorrean, pertsonaiak eta egoerak, bizitzatik bertatik hartutakoak lirartekeela uste dut, egoera arruntetatik abiatuko nintzateke, horiek baitira irakurleak errazen berenganatzen dituenak. Tabuen inguruan badira “tabuen tabuak” nolabait esateko, hots, gaur egun ere gutxitan aipatzen diren gauzak: bortxaketa, adibidez, edo transexualitatea, edo bisexualitatea, edo suizidioa... Ez dakit nola jorratuko nituzkeen horiek guztiak. Luzaroan pentsatu beharko nuke...

4. Eranskina: Inbentarioaren gainontzeko emaitzak.

69	Oilasko luma txatxua	Abarizia eta eskuzabaltasuna.	+ 3 urte	Lehenengo, oiloaren abarizia ikusten da beste animaliak jaten dituenean. Era berean, erregearen abarizia ere ikus daiteke erreagatik. Amaieran, oiloak aurretik jan dituen animali guztiekin urrea partekatzen du.
70	Eztitxu eta ozpin inspektorea	Askatasuna. Botere abusua.	+ 5 urte	Ozpin inspektorea herrian dena debekatzen du, herritarrek lekzio bat ematen dioten arte. Ordutik, protagonistarekin disfrutatuko du eta debekatzea alde batera utziko du.
71	Afrika eta koloreak	Koloreak eta baikortasuna.	+ 3 urte	Afrika elefanteak triste zamar dabil eta bidai bat egin eta gero, gauza txikiek duten garrantziaz jabetzen da, hauek boteetan sartuz eta koloreekin alderatuz.
72	Peruk ez du burua garbitu nahi	Higiene ohiturak.	+ 4 urte	Peruk ez du burua garbitu nahi eta soluzio baten bila, arrebak ilea moztea eskaintzen dio. Peruk aukera hori txarragoa dela jakin du, ordutik, bainu hartzea nahiago izanik.
73	Baionako alarguna	Maitasuna.	0-6 urte	Alargunak haren eraztuna aurkitzen duen gizonari ailegateraino egiten duen bidea kontatzen du.
74	Super ondo	Neska baten abenturak. Familien gatazkak.	0-6 urte	Neska bat erosketak egitera joaten denean bizi dituen abenturak kontatzen ditu, bere gurasoek haserre, ahaztuta utzi duten bitartean.
75	Sasoi onean	Bullying jarrerak. Autokonfiantza.	0-6 urte	Hasieran, bazterkeria jarrerak ikus daitezke elefanteaz barre egiten dutenean. Era berean, liburu honek bakoitzak atsegin duenagatik borrokatu behar dela kontatzea du helburu.
76	Zer da zalaparta hau?	Bullying jarrerak. Autokonfiantza.	0-6 urte	Hasieran, bazterkeria jarrerak ikus daitezke beste animaliek trikuri abesten ez dakiela esaten diotenean. Ondoren, ikus daiteke nola nahiz eta batzuen ustez gaizki abestu, norberak gustuko dituen gauzak egiteagatik borrokatzen du.
77	Hemen nahi zaitut	Maitasuna.	+ 3 urte	Sagua eta trikua banandu behar izan dira bost egunetan zehar. Bitartean, elkar ikusteko falta den denbora zenbatzen dute, irrikitan.
78	Ortzadar arraina, gera naiteke zurekin?	Bullying/Bazterkeria jarrerak. Laguntza jarrerak.	+ 3 urte	Hasieran, bullying-a nabaria da ezberdina den arrain bati baztertu egiten baitiote. Ondoren, egoera latz baten ondorioz, lagundu egiten diote eta haiekin bizitzera gonbidatzen diote.
79	Motx eta Potx zuloa ala muinoa	Laguntza jarrerak. Elkarlana.	+ 3 urte	Motx eta Potx ez dira ados jartzen eta bakoitzak gauza bat eraikitzen hasten da. Denborarekin konturatzen dira bien artean lan eginda errazago lortuko dutela bakoitzak nahi duena.

80	Kamile aita eta ama ez daude haserre	Familia eredu berriak.	+ 3 urte	Kamileri bere ikastolako laguna esan dio bere gurasoak banandu egin direla. Kamile horren beldur da eta errudun sentitzen da eztabaidatzen dutenean.
81	Amama eta aitita	Maitasuna. Bakoitza den bezalakoa maitatzea.	+3 urte	Dantza egitera joateko, Amona bere itxura hobetu nahi du, den bezalako ez delako onartzen. Aititak, aldiz, bera den bezalakoa onartzera animatzen du eta dantzatzera joaten dira elkarrekin.
82	Sagu txiki	Abarizia. Elkarlana.	3-6 urte	Hasieran ikus daiteke nola sagu langile bati hortzak lapurtzen dizkioten, arratoiaren emaztearen nahiak direla eta. Arratoiarekin akordio batera heldu eta sagua hainbeste lan ez izatea eta arratoia pozik joatea lortzen dute.
83	Kopetilun	Atxikimendua. Jeloskortasuna.	0-3 urte	Lontxo jeloskor dago, izan ere, ez du anai nagusia izan nahi eta bere amaren pinguino txiki bakarra izan nahi du.
84	Jafta	Familia eredu berriak. Kultura ezberdinen egoera.	+ 6 urte	Jaftaren aita diru bila joan behar da, hortaz, Jafta bere amarekin geratu da. Ama, behar diren lan guztiak egiten ditu eta hauei buruz hitz egiten du liburuan zehar.
85	Elmer berriro ere	Norberarekiko maitasun eta onarpena.	+ 4 urte	Ipuin honetan elmer den bezalakoa onartzen da, nahiz eta bere burua ezberdin ikusi. Era berean, bere burua onartu eta horrekin txantxak egiten ditu.
86	Mazapanezko gizontxo	Abarizia.	0-6 urte	Mazapanezko gizontxo guztiei egin die barre, jango ez dutelakoan. Otso batekin topatu eta tranpa bat jarri eta gero, hau jatea lortzen du.
87	Alex, nire laguna	Lagun ikusezina. Adiskidetasuna.	0-6 urte	Ixabel Alex du munstro ikusezintzat. Bakarrik berak ikusten du eta bere lagun hoberena da. Hala ere, bakarrik ez dagoenean eta hazi ahala, Alex jada ez da etortzen.
88	Kurruku oilarra	Norberekoikeria.	0-6 urte	Kurruku oilarrak bere lagunei gezurrak esaten dizkie eta hauek ez diete laguntzen. Azkenean, bere norberekoikeria dela eta, dena gaizki ateratzen zaio merezi duen bezala.
89	Txanogorritxu eta otso beltzu	Adiskidetasuna.	0-3 urte	Txanogorritxoren beste bertsio bat eskaintzen digu, non otso txanogorritxoren laguna egiten den. Amaieran, nahiz eta ehiztariek harrapatu nahi izan, guztiok lagun egiten dira.

90	Sara eta hartz handi	Fantasia. Ausardia.	+ 3 urte	Sarak hartz handia ehizatzea nahi du. Basoan murgildu eta honen bila hasten da. Aurkitzerakoan, beldurtuta, polita baino politago iruditzen zaio baina hartza joan egiten da.
91	Artur satorren herrian	Abenturak eta fantasia.	0-6 urte	Artur haren liburu magikoa hartuz, satorrekin bizi izandako abenturak kontatzen dira ipuin honetan.
92	Artur eta txoriak	Abenturak eta fantasia.	0-6 urte	Artur haren liburu magikoa hartuz, txoriekin bizi izandako abenturak kontatzen dira ipuin honetan.
93	Baba magikoak	Abenturak eta fantasia.	+ 3 urte	Julen eta amak txiroak dira eta dirua lortzeko zerbaiten bila, Julenek baba batzuen ordezkari izan da behia. Babak eskaintzen dieten abenturak direla eta, berriro ez dira txiro izango.
94	Ume hura eta agure hura	Adiskidetasuna. Familia eredu berriak. Eskuzabaltasuna.	+ 3 urte	Ume bat bere amonarekin bizi denetik aspertuta egoten da. Agurea ere, aspertu egiten da. Orduan, bestea ez aspertzeko zerbait egiten dute eta geroztik, elkarrekin joango dira dena egitera.
95	Maite nauzu oraindik?	Amaren maitasuna.	+3 urte	Martin kezkatuta dago, ama noizbait maitatuko ez dion pentsatuz. Amak Martinen kezkak guztiak kentzen dizkio, amaren maitasuna betirako iraungo duela esanez.
96	Olentzeroren malutak	Olentzeroren istorioak. Gaixotasunak.	+ 5 urte	Olentzero gabon gauan gaixotu egiten da eta zer egin ez daki, ez baitu umeei oparirik gabe utzi. Hortaz, puxikak balira bezala bidaltzen ditu opariak.
97	Muxarren zazpi oheak	Beldurra. Adiskidetasuna.	+ 3 urte	Muxar gauero ohe ezberdin batean egiten du lo, bakarrik lo egitea beldur ematen baitio. Lagunen kezkak direla eta, alde egiten du baina azkenean guztion artean irtenbide bat aurkitzen dute Muxar ondo lo egiteko.
98	Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo	Sator baten istorioa.	0-6 urte	Satorrari buruan kaka egin diona aurkitu nahi du. Horretarako animalia ezberdinei galdezka joaten da.
99	Igel eta Ugelekin egunak igaroz	Elkarlana. Disziplina.	0-6 urte	Igel eta Ugelekin istorio ezberdinak kontatzen dira, non istorio hauen bidez balore ezberdinak transmititu nahi diren; adibidez, nahi duguna lortzeko lan egin behar dugula.
100	Arrantzalearen emaztea	Abarizia.	+ 6 urte	Arrantzalearen emaztea hainbeste gauza nahi eta eskatzen zituen, non nekatu eta lehendik zituen gauzak edukitzera bueltatu zen.
101	Koloretako munstroa	Emozioak.	3-6 urte	Munstroa ez daki zer gertatzen zaion, emozio guztiak nahasi ditu eta. Bere laguna emozioak ordenatzen laguntzen dio hauek koloretan sailkatuz.

102	Katua banintz	Katuen bizitza. Adiskidetasuna.	0-6 urte	Liburu hau katuen bizitzaren ikuspegi bat eskaintzen digu, egiten eta egiten ez dituzten jarduerak azalduz. Era berean, nahiz eta katua izan, neskarekin duen harreman estua nabaria da.
103	Gabon zuri (beltza)	Gaixotasun fisiko/psikiko. Bullying jarrerak.	+ 3 urte	Mari, jaiotzez itsua da eta gabonetan, Guillerekin jolastu nahian, honek ez dio uzten, elurrezko bolak botatzen dizkion ahala. Egun batean, Marik mendekua hartzea erabakitzen du.
104	Nola dastatu ilargia	Elkarlana.	0-6 urte	Ilargia dastatu nahian, animaliek guztion artean antolatzen dira hau lortzeko. Azkenean, guztion artean haien helburua lortu egiten dute.
105	Zerua gris dago	Baikortasuna.	0-3 urte	Zerua grisa eta lurra elurrez beteta egonda, neska mutilak ondo pasatu ahal dutela kontatzen da istorio honen bitartez. Gauzak ilunak ere badituztela argitasuna azaldu egin nahi du.
106	Familia giroan	Familia eredu berriak.	+ 3 urte	Egoera ezberdinen bidez eta animaliak protagonistak izanda, familia eredu ezberdinak dira nagusi. Haien familiarekin egunerokotasunean egiten dituzten jarduerak kontatzen dira, era natural eta arin batean.
107	Kike zikina	Higiene ohiturak.	0-2 urte	Kike higie ohiturak oso txarrak ditu; izan ere, inoiz ez da garbitzen. Bere lagunak, aldiz, guztiz kontrakoa egiten dute. Azkenean, Kikek ere higie ohiturak hartzen hasten da.
108	Adio, adio!	Heriotza.	+ 4 urte	Aitak bere emaztea eta semea galdu egin zituen istripu batean. Bakarrik geratu eta orain, txantxangorri bat ikusten duen bakoitzean "Adio, adio" esaten die, haien emaztea eta semearen izpirituak balira bezala.
109	Ni ez naiz txerria	Bullying jarrerak. Autokonfiantza. Norberaren buruaren onarpena.	+ 4 urte	Joanes txerria ez dela badaki, izan ere, berak oso garbi eta txukun da. Hala ere, lagunak berataz barre egiten dute eta txerri bat dela esaten dute. Joanes, den bezalakoa onartzen da.
110	Betizu. Hiri handian	Hiriko bizitza. Abenturak.	+ 5 urte	Betizu, Eme eta Betisuis izebaren etxera joaten dira, hirira. Han, hainbat abentura bizi eta gero, herrira bueltatzen dira, herrian baino hobeto ez baitaude inon.
111	Oilo bustia	Beldurra eta honen gainditzea.	+ 3 urte	Egun batean aita eta bere semea igerilekura joaten dira baina aita arrisku-jauzia egitearen beldur da. Semeak aita salto egiteko ahalegintzen da. Azkenean, beldur guztiak albo batera utzita aita salto egitera ausartzen da.
112	Bosgarrena	Zenbakiak.	0-3 urte	Modu simple batean liburu honekin bost zenbakiraino kontatzeko beste era eskaintzen digu, egunerokotasuneko jarduera bat islatuz (medikua).

113	Arrosa eta leuna	Sexu berdintasuna.	+ 3 urte	Elefante emeak, haien bizitza osoan zehar arrosa izateko ahaleginak egin behar dituzte. Paskualina, nahiz eta saiatu, ez du lortzen eta grisa kolorekoa izan nahi du. Amaieran, arrosa koloreko guztia kendu eta nahi duen bezala izaten hasten da, emea edo harra izanik.
114	Ilartxo	Inklusioa.	+ 3 urte	Ilartxo oso txikia da eta eguneroko gauzak egiteko egokitu behar izaten da. Hala ere, bere tamaina ez dio galarazten ilartxori gauza handiak egitea eta artista on batean bihurtzea.
115	Hamaika andere ausart	Berdintasuna. Estereotipoak apurtzen.	+ 2 urte	Ipuin hau gizartean izan ohi ditugun emakumeenganako estereotipoak apurtzen saiatzen da, izan ere, hamaika emakume abenturazale, independente.. agertzen dira.
116	Maiteminduak	Maitasuna.	+ 5 urte	Protagonistak jostailuak izanik, bikote baten gora beherak azaltzen dira, azkenean maitasuna gauza guztien gainetik irabazle ateraz.
117	Supositorioak otsoarentzat	Gaixotasun fisikoa. Osasuna.	+ 4 urte	Protagonistari supositorio bat jarri behar izan diote. Umorearekin partekatuz, supositorioa jarri izateak dituen abantailak eta desabantailak kontatzen ditu.
118	Eskerrik asko!	Eskerrak ematea.	+ 3 urte	Enarak munduari buruz galdera asko ditu eta amonak ez dakizki erantzuten. Hortaz, amonak erakusten dio nola batzuetan ez den beharrezkoa dena jakitea, baizik eta disfrutatzea eta esker onekoa izatea.
119	Grvs, nire laguna	Aniztasuna. Kulturartekotasuna.	+ 3 urte	Grvs, kanpotik etorritako mutil berria da. Nahiz eta hasiera batean protagonistak oso ezberdin eta arraro ikusi, denborarekin lagun minak egingo dira eta guztiok ezberdinak garelako ohartu egingo dira biek.
120	Ama erraldoia	Naturarekiko zaintze jarrerak.	+ 5 urte	Istorioren bidez, ipuin honek natura eta lurra zaindu behar dugula kontzientziatu nahi du, bestela, bizitzeak ere zailtasun handiak izango dituela ohartaraziz.
121	Hamalau, jostun kementsua	Ausardia.	+ 6 urte	Jostuntxoak 14 euli hil eta gero, gerriko bat egiten du guztiok haren ausardiaren berri izateko. Erregea hori ikusita, proba ezberdinak jartzen dizkio haren alabarekin ezkondu ahal izateko.
122	Gure inguruko jendea	Kulturartekotasuna. Berdintasuna.	0-6 urte	Modu deigarri eta labur batean munduan bizi garen pertsonok kanpotik ezberdinak izan arren barrutik guztiak berdinak garelako azaltzen du.
123	Amets magikoa	Loa. Ametsak.	0-3 urte	Hartz txiki bat protagonista izanik, loaren eta ametsen inguruko ipuina da.

124	Nora zoaz, Wombat txiki?	Daukagunarekin pozik egotea.	0-3 urte	Wombat ez dago batere gustura bere etxean eta nazkatuta, beste etxe baten bila joaten da. Etxe ezberdinak ikusi ahala, konturatzen da bere etxea bezalakorik ez dagoela.
125	Jeloskor nago	Jeloskortasuna. Adiskidetasuna.	+ 2 urte	Tximinoak pilota berri bat du eta katua, jeloskor, kendu nahi dio. Gainontzeko animaliek, aldiz, guztion artean jolasteko gai dira eta katuari jeloskortasuna eta haserrea pasatzen zaionean, haren lagunekin bueltatzen da jolasteko.
126	Raul artzaina	Maitasuna	+ 6 urte	Raul artzaina bere herriko bizimoduaz nazkatuta, hirira joaten da bere ardiak herrian utziz. Hirian, bizimodu berri bat hasten da baina ardiek hirira haren bila joaten dira. Barbara izeneko neska bat ezagutzen du eta hain maite du Rauli, non ardi eta guzti bueltatzen diren herrira.
127	Ane eta ahatetxoak	Familia eredu berriak.	+ 4 urte	Anek bi ama ditu eta oso pozik bizi da haiekin. Egun batean, Aneri bi ahate oparitzen dizkiote baina txito bat ezin dutela izan ikusterakoan, biak emeak baitira, triste jartzen da. Orduan, amek arrautza bat oparitzen diote Aneri, ahateak ere familia bat osatu ahal izateko.
128	Kezkamuxelak	Familiaren garrantzia. Beldurra edo kezkak.	+ 5 urte	Ibai beti kezkatuta eta beldurtuta dabilen mutiko bat da eta kezka hauek ez diote lo egiten uzten, nahiz eta bere gurasoak lasaitzen saiatzen diren. Hau dela eta, amonak panpin txiki batzuk, kezkamuxelak, ematen dizkio, haiei bere kezkak kontatu ahal izateko eta, horrela, gustura lo egiteko.
129	Miren txirintxaketan	Familiaren garrantzia.	+ 3 urte	Behin, Miren kaka egiten zegoela haizeak eraman zuen eta geroztik, munduko leku askotara joan zen haizearekin batera. Egun batean, Mireni zirku batean aritzeko harrapatzen diote baina haizea salbatu egiten dio.
130	Hau al da benetako giza bidea?	Elkartasuna. Maitasuna.	+ 5 urte	Benetako giza bidearen bila, ume batek hausnartu egiten du bizitzaren inguruan, mundu hobetoago bat eraikitzeko elkar lagundu eta elkar maitatu behar garela esanez.
131	Espagetiak susirentzat	Eskuzabaltasuna. Adiskidetasuna. Ohiturak.	+ 2 urte	Susiri espagetiak besterik ez zaizkio gustatzen. Egun batean, haien lagunei espagetiak ematen dizkie eta hauek erabilera anitzetarako erabiltzen dituzte. Truk, lagunek, fruta ematen diote Susiri, bestelako jakiak ere jan dezan.
132	Albertok kaka egin du	Maitasuna. Jeloskortasuna	+ 3 urte	Simonak eta Augustok bikote paregabea dira, asko maite dira. Hala ere, Augusto jeloskor dago Alberto untxia denbora asko pasatzen baitu bere emaztearekin. Etxetik joan eta zirku batean elkartu egiten dira, Augustok ere lagun berri bat izanik eta jeloskortasuna desagerturik.

133	Hondartzako gazteluaren ipuina	Borroka. Elkartasuna.	+ 2 urte	Hasiera batean, bi umeen arteko borroka eta lehiakortasuna ikus daiteke, gaztelu handiena nork egingo duelakoan. Amaieran, arazoak direla eta, ikusten dute nola elkarrekin lan egiten haien helburua lortzea errazagoa den.
134	Otsadarreko kolore guztiak	Kulturartekotasuna.	+ 3 urte	Ume baten ikuspegitik, bere eskolan dauden jatorri ezberdineko umeen izaerak azaltzen dira. Era berean, eskolako ume guztiak ondorioztatzen dute, nahiz eta guztiak kanpotik ezberdinak izan, barrutik guztiok berdinak garela.
135	Betiko	Heriotza.	+ 3 urte	Modu arin batean, protagonistak animaliak izanik, heriotza lantzen duen ipuina da. Azeria gaixotu eta hil eta gero, lagunek haren falta sumatzen dute. Bere oroimenean, azeriari gaizki ateratzen zitzaizkion jarduerak egiten hasten dira.
136	Patxiku	Adiskidetasuna.	0-2 urte	Patxiku izeneko sagua, ilargira doa hau jateko asmoz. Ilargira iristerakoan, ezin duela jan konturatzen da eta triste eta goibel jartzen da. Ilargia, hau animatzeko asmoz, kankak abesten dizkio eta besarkatuz, lo gelditzen da.
137	Txikitzen zaretenean	Umea izatearen onurak. Gurasoen-umeen harremana.	+ 5 urte	Umeen ikuspegitik, gurasoek ume bihurtzeko arrazoiak ematen dira, modu natural eta polit batean. Era berean, ipuinak gurasoen eta umeen arteko harreman estua agerian uzten du.
138	Zapatagorri	Desmitifikazioa.	+ 5 urte	Txanogorritxuren beste bertsio bat eskaintzen duen ipuin bat da, non otsoaren irudia gizonarena bihurtzen den eta txanogorritxu bera egungo neskatoaz ordezkaturia agertzen den.
139	Ilargi-adarra	Abarizia. Norberaren buruaren onarpena.	+ 4 urte	Abere ezberdinek ez daude pozik haien bizitzarekin, hortaz, oztarratik igarotzea erabakitzen dute, horrela, haien bizitza aldatzeko. Hala ere, konturatzen dira hori aldatuta, ez direla zoriontsu eta lehen ziren bezalakoak izan nahi dute.
140	Larremotzeko sorgina	Beldurra. Laguntza jarrerak. Abarizia.	+ 5 urte	Larremotzeko herritarrei haien ondasunak desagertzen has zaizkie eta beldurra da nagusi herrian. Sorgina bilatu nahian, Ulises lapurreten erruduna bilatzen laguntzen die, azkenean, kondea izanik errudun nagusia.
141	Erregearen traje berria	Abarizia.	+ 5 urte	Erregea traje berri baten bila dabil denbora oro. Egun batean, lapur batzuk herrira ailegatu eta traje ikusezin bat egiten diote erregeari. Herriaren aurrean desfilatzerakoan, bere buruaz barre egiten hasten dira biluzi doala ikusterakoan.

142	Edur ihesi	Adiskidetasuna. Familia eredu berriak.	+ 5 urte	Animaliak protagonistak izanik, egoera txar batetik ateratzeko elkar laguntzen dira. Era berean, hartz beltzarana larruazal txuria duten familia berri batera joan behar da, ezberdina izateagatik onartuko ez duten beldur.
143	Pinto oilarraren ezteiak	Abarizia. Sexu rolak. Maitasuna.	+ 5 urte	Pinto oilarra Julianarekin ezkondu nahi da, bere neskamea izateko eta etxeko lanak egiteko. Ezkontza egunean, Juliana konturatzen da Pinto oilarraren asmoak ez direla onak eta benetan maite diona azeria dela, hortaz, elkarrekin ezkontzen dira.
144	Mikela nahastuta dabil	Adiskidetasuna. Heziketa jarrerak.	+ 2 urte	Mikela tarta bat egiteko osagaien bila joaten da. Zaldiari esker sagarrak lortzen ditu eta Pinpirin andereari esker arrautzak. Pinpirin andereari ez dio kasu handirik egin eta txito bat daukan arrautz bat hartu du. Amaieran, tarta egin ondoren, lagunei zati bat ematen die eta kasu egitera ikasten du.
145	Zuhaitz baten historia	Adiskidetasuna.	0-2 urte	Zuhaitz baten ikuspegitik kontatutako istorioa da, non gizonak moztu nahian, zuhaitzaren lagunek lagundu egiten dieten hau ez gertatzeko.
146	Iker ikerlaria	Kreatibitatea. Imajinazioa.	+ 2 urte	Iker, ume guztiak bezala, handitan izan nahi duenarekin amets egiten du. Hori dela eta, asmakizun ezberdinak asmatzen ditu ondo pasatzen duen bitartean.
147	Zaindu edo xahurtu?	Lurrarekiko zaintze ohiturak.	+ 3 urte	Eskolan, Markok lurrari laguntzeko zer egin dezakegun ikasi du eta etxera iristerakoan haien gurasoei kontatu eta praktikan jartzeko ideia xelebreak egiten hasten dira.
148	Ekilorea	Urtaroak eta bizi zikloa.	0-3 urte	Margotek hazi bat landatu eta ekilore bat atera da. Margot oso pozik dago baina udaberria igaro eta gero, ekilorea zimeldu da baina Margot konturatu da hazi bat berriro landatuz gero udaberrian beste ekilore bat aterako zaiola.
149	Txomin eta urtaroen liburu handia	Urtaroak.	+ 3 urte	Txominek urtaro ezberdinak erakusten ditu ipuin honen bidez. Era berean, urtaro bakoitzarekin lotuta dauden janariak, landareak etab. ere agertzen dira.
150	Txit oilo bitxia eta tximinoak	Txit oiloaren abenturak.	+ 3 urte	Txit oiloa, gaurkoan, tximinoekin egin du topo eta haiekin jolasean aritu da denbora batez. Txinatik ekarritako jolas bat erakutsi eta gero, Txit tximinoei oparitzen die hauek jolas dezaten, oiloak bidaiatzen jarraitzen duen bitartean.